



## Katxarroen eguna Bakaikun

Larunbatean, 10:00etatik aurrera / 17



**D ereduak Haur Hezkuntzan 1,5 puntuko igoera izan du. Ziklo guztietan igoera 0,1ekoa da** / 2-3

**Hasi dira Etxarri Aranazko plazan estalopea jartzeko lanak egiten. Eguberrirako prest** / 7

**Euskal Herriko Erdigunera mendi martxa igandean: 8:15ean Unanutik eta 9:30ean Irañetatik** / 17

**Argentinako Sutottos konpainiaren 'Inestables' lanarekin hasiko da Irurtzungo Antzerki Zikloa** / 22



**Helena Taberna zinemagilearen atzera begirakoa Euskadiko Filmategian** / 23




## Txistorraren festa

X. Txistor Eguna ospatuko da Arbizun igandean / 11-13



HIZKUNTZA BILAKAERA OROKORRA



# Euskarazko ereduak 1,5 igoera du Haur Hezkuntzan

Ikasturte honetan Haur Hezkuntza hasi diren ikasleen % 86,9 D ereduan (euskaraz, gaztelania ikasgaia) ikasten ari da. Hala ere, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH batuta hazkundera 0,1 puntukoa besterik ez da izan

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA  
 Hizkuntza ereduaren bilakaera matrikulazio garaian aztertzen ditu Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak urtero eta 2018-2019 ikasturteko datuak jakinarazi berri ditu. Euskarazko eredia da hizkuntza ikastea bermatzen duena. Hala diote hezkuntzako eta soziolinguistikako adituek. Mank-etik zabalduko datuen arabera, D eredia hezkuntza zikloetan egoera honako egoera du: Haur Hezkuntzan ikasleen % 86,9 (1,5 gora), Lehen Hezkuntzan ikasleen % 82,3 (0,2

gehiago) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan % 79,7 (0,8 gehiago).

**Zikloa**

**Haur Hezkuntzan (HH)** aurreko ikasturtean baino 45 gutxiago matrikulatu dira, 587. Haietatik % 86,9 (510) euskarazko ereduan ikasten ari dira. Aurreko ikasturtearekin alderatuta D ereduak 1,5 puntu egin du gora. Euskarazko ereduan aurreko ikasturtean baino 30 ikasle gutxiago daude. A eredia (gaztelaniaz eta euskara ikasgaia)

% 8ko matrikulazioa du, 47 (0,6ko eta 7 ikasleko galera). Azkenik, B ereduan (ikasgai gehienak euskaraz, batzuk gaztelaniaz) % 5,1 ikasle matrikulatu dituzte gurasoek, 30 (0,9 puntu eta 8 ikasle gutxiago).

**Lehen Hezkuntzan (LH)** 1.465 ikasle daude izena emanda, aurreko ikasturtean baino 68 gehiago. Euskarazko ereduak 9 ikasturteren ondoren behera egin zuen portzentajea aurreko kurtsoan. Orduan galdutako 0,2 puntuak aurtengo matrikulazioarekin berreskuratu ditu D

ereduak eta % 82,3an gelditu da. 1.205 ikasle daude euskaraz ikasten, aurreko kurtsoan baino 57 gehiago. A ereduan ikasleen % 12,1 daude, 178 (0,9 puntu gutxiago eta 3 ikasle gutxiago). B ereduan bigarren urtez segituan gora egin du matrikulazioak eta % 5,6 da, 82 (0,7 eta 14 ikasle gehiago). Bi urteren ondoren hizkuntza eredu horren matrikulazioa % 5etik gora gelditu da.

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH)** 779 ikasle ari dira ikasten, aurreko ikasturtean baino 49 gehiago. Haietatik % 79,7 D ereduan ikasten ari dira. Hau da, euskaraz ikasten ari diren ikasleak 621 dira (0,8 puntu eta 45 ikasle gehiago). Euskarazko ereduak DBHn sekula

lortu gabeko maila lortu du eta bost ikasleetatik lau D ereduan aritzeko 0,3 puntu besterik ez da falta. A ereduan % 20,3 edo 158 ikasle daude izena emanda (0,8 puntu gutxiago eta 4 ikasle gehiago).

**Orokorrean**

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn 2.831 ikasle ari dira ikasten, aurreko kurtsoan baino 72 gehiago. Euskara Zerbitzuak zabalduko datuen arabera, D ereduan % 82,5 ari dira, 2.336 (48 ikasle gutxiago eta 0,1 gehiago). A ereduan ikasleen % 13,5 ari dira ikasten, 383 (0,4 puntu gutxiago eta 20 gutxiago). Azkenik, B ereduan ikasleen % 4 daude, 112 (% 0,3 eta 6 ikasle gehiago).



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



s 9000 Etxe pasiboetarako egokia


IKD Isolamendu nukleo indartsua

STV Beirak lehorrean jarrita


Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea


### HAUR HEZKUNTZA



### LEHEN HEZKUNTZA



### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA



Irakasleak iraileko trebakuntza saioa. NAFARROAKO GOBERNUA

## Zazpi eskola publikoko irakasleak hezkidetzara trebatzen

Trebatzen ari dira "Nafarroako ikasleek berdintasunean bizitzeko beharrezko gaitasunak gara ditzaten"

SAKANA

Skolae programa Hezkuntza Departamentuak diseinatu du parekidetasuna eta hezkidetzara nafar hezkuntza sisteman txertatzeko. Skolae gaitasun hori definitu egin du gure ikasleek euren bizi-proiektu propioa hauta dezaten, aniztasunetik, genero baldintzarik gabe, desberdintasuna identifikatzen jakin dezaten, euren kontra egiten jakin dezaten eta euren berdintasun eskubideaz balia daitezen, kultura, erlijio, gizarte klase edo egoera funtzionala dena delakoa izanda ere.

Skolae programaren barruan irakasleek aurrez-aurre trebatzeko jardunaldia izan zuten irailaren erdialdean. Jardunaldi horretan jasotakoa online trebakuntzarekin osatuko dute kurtsoan zehar. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi duenez, aurreko kurtsoan 16 zentrotan programa pilotua egin zuten. Herrialdeko hezkuntza ziklo guztietako 100 bat ikastetxe eta 1.200 irakasle parte hartuko dute programan ikasturte honetan, zentro publikoak eta itunpekoak. Ikastetxe bakoitzak erabaki du zenbat irakasle jarri lan horretan eta zenbat tutoretza bideratu, zein izanen den zentroko talde-sustatzailea, diagnostia egingen duen arduraduna eta zentroak izanen duen hezkidetzara plana nork osatuko duen. Plangintza horretan jasota egonen dira hobekuntza orokorrak liburutegirako, espazio komunitan, patio eta jolas-lekuetan,

hizkuntzaren erabileran, webean jarriko diren irudietan, besteak beste.

Ikasturte honetan irakasleak Skolae lau ardatz nagusien irakaskuntzan barneratuko dira: kritika eta ardura desberdintasunen aurrean; autonomia eta independentzia pertsonala; lidergoa, ahalduntzea edo parte hartze soziala; sexualitatea eta tratua ona, Osasun publikoko Institutuarekin koordinatuta. Hezkuntza Departamentuak iragarri zuten Skolae hezkidetzara programa datozen hiru urtetan ezarriko duela Nafarroako ikastetxe guztietan.

### Zazpi eskola parte hartzen

Lakuntzako herri eskola, Arbizuko herri eskola, San Donato (Etxarri Aranatz), Arrano Beltza (Iturmendi), Urdiaingo herri eskola, Zelandi (Altsasu) eta Domingo Bados (Olatzagutia).

## Ahokotasuna

Altsasu institutuak 10 urteko esperientzia du duen ahokotasuna lantzen. Proiektuaren berri eman zuten Gobernuaren Eleaniztasuna: bertatik mundura jardunaldian, larunbatean. *Nola lortu bertako hizkuntzetatik abiatuta, pertsona eleanitzak?* gaia landu zuten.





ASTEKOA

RAF ATXURI

## BIZI

Oso urrun gelditzen da 1981ko ekainaren 21 hura. San Pedrozelaiko haritzen gerizpean egin zen lehen Nafarroa Oinez, Altsasuko eta Etxarriko ikastoletako gurasoek antolaturik. Baiki. Lehen Oinez-a udaberri-uda arteko igande batez gertatu zen. Artean mugikorrik ez zen, sare sozialak edota Guaixe bera pentsaezinak, diskotekak igande arratsetan ere zabaltzen ziren zer eta Rafaela Carraren eta Boney M-en doinuak dantzatzeko. Ronald Reagan izeneko aktore ohi bat munduko "sherif" bihurtu eta ordena zahar-berriari ekin zion munduan barrena.

Belaunaldi luze bat iragan da geroztik, "Baby boom" garaiko gazte andana aitona-amonak dira, eta aldaketak aldaketa, Euskararen garapena lantegi eta dema da oraino.

Ordudanik beste bi Oinez-ek zeharkatu dituzte Burundako bazterrak, 1993ko euritsu eta hotz hark, Cojon Prietoren kontzertu ezinago lohitsu barne, eta 2005ean Ziordia eta Olatzagutia artean eguzkipean gertatu zen eder eta oskarbiak.

Edukiz, taxuz eta azalez nabarmen eboluzionatu da festa hau edizioen joanarekin.

## BAIKI. LEHEN OINEZ-A UDABERRI-UDA ARTEKO IGANDE BATEZ GERTATU ZEN

Kanpaldi giroko bezpera gaupaseroek aio esan, eta abestiak, bideoklip historikoak, kontzertu mitiko erraldoiak nahiz Erronka bezalako ekitaldiak etorri ziren.

Euskararen mundua pitteka-pitteka osatuz joan da, kultur eskaintza eta ezagutza hazi da, apika izugarri hazi. Erabileran, ordea, herrenka gorrian da hizkuntzaren ibilia, halako moldez, arriskupeko egoerara ekartzeko baitu epe ertainean.

Hontaz, oso aproposa iruditzen zait aurtengo leloa. Euskarak bizi gaitzala, Euskara bizi dezagun, bizigarri izan bedi Aturri-Ebro arteko lurretan. Aho, belarri, begi, gogoetan bizigai, guztiendako bizikizun eta bizipoza. Hots, eta ez diot deus berririk: Euskaraz bizi gaitezen.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## GUTUNA

## Hodei, hamar urte eta gero

## JOXE ALDASORO JAUREGI

Hamar urte eta gero Hodei Ijurko atxilotu, jipoitu, ehunka kilometrotara espeteratu, isolatu, berriz jipoitu, epaitu eta zigortu egin zutenen arrastorik ez. Hamar urtez terrorista, demokraziaren etsai, bortitz, totalitario, fanatiko deituz bere izena zikindu dutenen usainik ez. Zerriak!

Hamar urte. Herritarrek hitz egin duten arte. Bakean uzten zaionean herriak hitz egiten badakielako, hitz egiten duelako. Esaten duena entzuteko belarriak behar, gogoia.

Hitz egin dute lagunek, koadrilakoek, kintoek,

senideek, musikariek, abeltzainek, dantzariak, zinegotziek, ezagutzen ez zuten gazteek, duen adina ahaztuta zuten zaharrek, ideologikoki gertu zein antipodetan dituenak ere. Txaloka, garrasika, bengalak piztuz, dantzan, zarataka, pozik, suziriak botaz, festa giroan, builaka, alai.

Hitz egin dute eta hauxe diote: ezin izan zaitugu lehenago ekarri! Bazen garaia! Ez dago eskubiderik! Aspaldi behar zenuen etxean!

Ez da hala ere inprobisatutako diskurtsoa izan. Norbaitek askatu ditu, momentu batez behintzat, josirik dirauten herritarren ezpainen. Preso egon den bitartean elkartasunaren soka lotu dutenak; astero-astero

gainontzeko presoeri berri ere eman dutenak; isunak, fidantzak eta presoeri egunerokoa arintzeko milaka euro bildu edo espetze atariraino furgonetak gidatzen dituztenak; ilegalizazioan zaildutako pertsonak; polizia aurre egiten zein legeari muzin egiten aritutakoak. Horiak guztiek, zer gertatuko zen ongi jakin gabe izan dira plastikoko beltza urratu eta herritarrei aukera eman diotenak urteetan isilarazia izan den epaia plazaratzeko: ongi etorria!

Eta ez hori bakarrik, Hodeirekin garrasi, dantza, negar, topa egin genuenok aski, kito, bale, nahikoa da oihukatu genuen. Sobera, gehiegi ordaindu dutelako, denak etxera. Orain presoak.

## OBJEKTIBOTIK



## Eta gero... geroakoak

Goikoa estolda bat da. Sakanako edozein herrietakoa izan daitekeen estolda bat. Lurrez eta zaborrez beteta dagoen estolda bat. Euri ura

hartzeko zulorik ez duen estolda bat. Bere egitekoa egitea ezinezko duen estolda bat. Estolda hori, eta ibarreko beste hainbat, zakarrantzi,

hautsontzi edo beste edozer gisa erabiltzen delako. Euri garaia heldu da eta gero bajera edo etxea urez betetzen delako kexatuko gara.

# guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzaileak:**  
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza  
**Zuzentzailea:**  
Felix Alzelai Iriarte

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus


**Maketatzailea:**  
lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Aralarren eginen den basozainarendako etxolaren irudikapena. IÑAKI URKIA LUS

## Guardetxea egiteko lanen deialdia egin da

Aralarren eginen den eraikina basozainarena da. Udarako egina egotea espero da. Bigarren eraikin handiago bat jasotzea aurreikusi da, besteak beste, ostalaritza zerbitzua eta bertako produktuen denda izanen duena

### SAKANA

Aralar mendira joaten diren askok eta askok faltan dute guardetxea, Nafarroako Gobernuak 2009ko apirilean bota zuena. Aralarko Elkarrekin bi eraikinez osatutako proiektua egin nahi du, bi epetan. Lehenik basozainaren bulegoa hartuko duen eraikina jasoko da. Eraikitako 87 metro karratuko azalera bulegoa, komuna, arreta gunea, bildegia eta beste izanen ditu (76,56 m<sup>2</sup> erabilgarri). Bio-eraikina izanen da, mendiko zura eta han larratzen diren ardiak erabiliko dira hura jasotzeko. Bio-eraikuntzan aditua den Iñaki Urkia Lusen sinadura du egitasmoak.

Eraikin hori hasiera batean udarako jasotzea espero zen. Gerora aurreikuspenak atzeratu eta udazkenerako iragarri zen. Baina Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak lanak emateko deialdia gaur bertan egin du publiko. Lanek 81.121,34 euroko aurrekontua du (BEZ barne). Baina departamentuak 75.000 euro bideratuko ditu soilik, gainontzekoa materialarekin, zurarekin, beteko du. Izan ere, gobernuak guardetxea bota zuean, baimenik gabe, beste 206 zuhaitz bota zituen. Material horretako 20 m<sup>3</sup> eraikinaren egiturari, zoruan eta sabaian erabiliko da eta, horregatik,

gobernuak ez du aurrekontu osoa beteko. Enpresa interesatuek euren eskaintzak hilaren 25era arte egin ditzakete.

### Bi negoziazio

Aralar Elkarteko presidente eta Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkinek azaldu digunez, lanak ez dira aurten hasiko eta eguraldia hobetzen denera itxarongo dute. Gauzak ongi, guardetxea udarako zabalik legoke. "Bi hilabeteko eraikuntza lana da berez", zehaztu digu alkateak. Gobernuak pagatuko ditu lan guztiak. Hori egin bitartean Aralar Elkarteko kideak Nafarroako Gobernuarekin eraikin nagusiaren eraikuntza negoziatzen ari da. Eraikin horrek 150 m<sup>2</sup>-ko azalera luke.

Razkinek argitu digunez, Aralarko kontserbazio bereziko eremu guztia hartzen duten 35 herriak lemazain batzordean bildu dira. Han daude Aralar Elkarteko, Larraungo eta Arakilgo herriak, Bakaiku, Aralar-kontserbazioa, Sakanako Garapen Agentzia, Plazaola turismo partzuergoa eta Ingurumen eta Turismo departamentuak. "Guztien artean Aralar mendiko erabilera publikoko plan berria eginen dugu. Eta horren barruan guardetxe berriari buruzko proiektu berria jasoko duen txostena eginen da". Razkinek argitu digunez, lan horren lidergoa Aralarko Elkarteari eman dio. Elkarteko presidentek azaldu digunez, "mendiaren inguruko herrietako ordezkariak hitz egin ondoren zirriborro bat lantzen ari dira, eta haren gainean hasiko gara lanean". Lemazain batzordeak lana urte eta erdian edo bi urtetan despeditzea espero du.

Bitartean, Aralar Elkarteko ordezkariak guardetxe berrirako finantziazioa bilatzen segitzen dute. Aldi berean, bigarren negoziazio bat ere martxan dute, mendiaren titularitatea elkarrearen eskura pasatzeko hain zuzen ere. Nafarroako Parlamentuan izan ziren eskaera egiten eta gaia han aztergai dagoela azaldu digu Aralar Elkarteko presidentek.

**ARALARKO ERABILERA PUBLIKOKO PLANA URTE ETA ERDIAN EGIN NAHI DA. BAITA GUARDETZERENA**

## Etxarriko kanpina kudeatzeko deialdi berria

Interesa dutenek euren proposamenak udaletxean azaroaren 9ra arte aurkez ditzakete

### ETXARRI ARANATZ

Kanpinaren eta igerilekuaren alokairu-kontratua emateko deialdia hutsik gelditu ondoren, Etxarri Aranatzko Udalak azpiegituraren kudeaketa emateko deialdi berria egin du. Deialdi berriak aurrekoaren oinarria mantentzen du, baina hiru aldatuta nagusi egin dira. Alde batetik, kontratuaren luzera 20 urtetik 15 urtera pasa da. Bestetik, kudeaketa hartzen dutenek aurreneko bi urteetan udalari 40.000 euro ordaindu beharko dizkiote. 3., 4. eta 5. urtean 45.000 euro eta 6. eta hurrengoak 50.000 euro (kopuruak BEZa kanpo eta KPI eguneraketarik gabe).

Kanon horri lotuta egin du bigarren aldatuta udalak. Kudeatzailearen eta udalaren artean hitzarmen bat sinatuko da. Eta hartan jasoa geldituko da udalari pagatu beharreko kanonaren zati bat kanpinean inbertsioak egiteko bideratzeko aukera. Deialdian egindako azken aldatuta aukera emanen dio kanpinaren jarduerako zati bat azpikontratatzeko (taberna, mantenua...). Hori egin ahal izateko pleguan jasotako zerbitzuak mantendu behar dira eta beti udalaren adostasuna izan beharko du.

### Esataria: Mainer Gaurko gaiak:

- Ekhi Congilekin Hego Koreako mundialaz
- Monika Etxebarriarekin Txistor Egunaz
- Karlos Garzia erlezainarekin hizketan

**Ostiralero** 9:30ean  
**SAIOA** Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



guaxe.eus-en ON LINE





## Feriak kioskoaz despeditzeko

Plazan estalpea egiteko lanak hasi aurreko azken ospakizunak izan ziren feriak, hemendik aurrerakoak kiosko berriarekin eta estalpearekin izanen direlako. Feriei dagokienez, larunbatz geroztik animazioa izan zen. Igandean 15. Sakanako gazta txapelketan sei gaztandegik parte hartu zuten eta podiuma Albik, Balda-Artolak eta Araña-Etaiok osatu zuten.



## Festetako erakusleihu onena

Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) eta Altsasuko Peñek 3. Festetako erakusleihu lehiaketa antolatu zuten. Bozketa bidez aurtengo erakusleihu irabazlea Asensio denda dela erabaki da. Botoa eman zuten 90en artean ADEko dendatan gastatzeko 30 euroko hiru txartel zozketatu ziren. Sarituak Ione Berasategi, Ander Garisoaine eta Fernanda Jorge izan ziren.

## Ttap aldizkari digitala eta multimedia Nafarroara iritsi da

Nafarroako 0 zenbakian, Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizu elkarrizketatu du Juan Kruz Lakastak. Gauzak ongi, eta proiektua aurrera eramateko babesa sendotzen bada, 2019an Ttap-ek Nafarroako edizioa izanen du. Aldizkari digital eta multimedia eskuko telefonoetan eta tabletetan irakurri, ukitu, ikusi eta entzun daiteke. Edukiak

hainbat formatu eta euskarritan lantzen dira, erabiltzaileari esperientzia atsegina eta interesgarria eskaintzeko. 0 zenbakia- ren barruan gozatu ahal izanen dira Garazi Arrula idazlearen zutabea, Joseba Beramendi Exprairen ilustrazio animatua, Josu Santesteban argazkilaria- ren Iruñeko Alde Zaharreko patio ezkutuei buruzko irudi sorta, eta Karrikiri Elkarteko kide Irati Majueloren liburu gomendioa. Aplikazioa www.ttap.eus-tik deskargatu daiteke.

# Gaztetxearen 28 urteko borroka ospatzen

Okupazioaren 28. urteurrena dela eta antolatutako egitaraua aletzen hasi ziren asteburuan. Gaur, 10:00etan, gaztetxeak herri eskola hartuko du eta Palestinari buruzko hitzaldia izanen da. 20:30etik aurrera, berriz, pintxo-potea izanen da

### ALTSASU

Altsasuko gaztetxearen 28. urteurrena ospatzeko hainbat etxaju bota zituzten ostiralean. Altsasuko Gazte Asanbladako kideek adierazi zuten, "28 urte hauetan ehundaka gazte pasa dira gaztetxetik. Gure buruak botere-tu ditugu, kolektiboan bizitzen ikasiz, eztabaidatzen, ardurak hartzen, esaten zigutena- rekin kritikoak izaten, emant- zat ematen den guztia zalantzan jartzen..." Altsasun duela 28 urte okupatutako egoitza Euskal Herri osoko gaztetxeen "loral- diarekin" lotu zuten, "prozesu etengabe bat balitz bezala lora- tzen dira". Horren guztiaren arrazoia "itzalpean, kasik ikusi ezinak diren milaka gazte inurrik egindako fruitu dira. Antola- kuntza eta borrokaren emaitza, ez dago beste biderik".

Gaztetxeen moduko proiektuak "hedatzea beharrezkotzat" jo zuten. Gaztetxeak "mundua ulertzeko beste modu bat" gisa



Kalderete lehiaketa egin zen. AGA

definitu zituzten: "gure behar propioak asetzeko espazioak dira, lege arrotzik gabeko gune askeak dira, kapitalari espazioa kendu eta langileon beharrei erantzuteko espazioak dira. Nahiz eta hobetzeko asko dugun, mun-

du berri baterako bidea marraz- ten dugu". Gazte asanbladako kideek ziurtatu zuten, "auto- gestioa hedatzen segituko dugu eraikinak eta kaleak okupatuz".

### Ospakizunak

Aurreko astean ospakizuneta- rako beharrezko auzolanak egin eta gero, ostiralean egindako pintxo-potearekin eta film-labu- rren lehiaketako, Gazte wood galarekin hasi zen Altsasuko gaztetxearen 28. urteurren osp- akizunak. Kalderete lehiaketa hartzeko gaztetxe ondoko plaza txiki gelditu zen aspaldi eta Foru plazak hartu zuen, atzera ere. Sukaldariak lehenik eta gero jalez betetako mahaiek bete zu- ten plaza. Jai giroak iluntzera arte segitu zuen gaztetxean ze- goen dantzaldiarekin.

Gaurkoak aparte, hilaren 21ean, Nafarroa Oinez dela eta, egun osoz zabalik egonen da gaztetxea eta 20:30ean, Juantxo Skalariren kontzertua dago.



ISKIDI

## Iskidi pailazoen aurkezpenean

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek "Musua" disko-liburua aurkeztu zuten larunbat goizean. Hura aurkezteko Lasarteko kaleetan barna pailazoen kalejira egin zuten. Hartan laguntzen abesbatza bat eta Orritz-Iskidi elkarteko joaldun txikiak parte hartu zuten. Ondoren, pailazoen aurkezpena egin zuten. Pentsatzekoa da aurki Irurtzunen bisitan izanen direla.



## Ricardo Palaciosen zezena Gernikan saritua

Gernika-Lumon 33. Euskal He- rriko pirenaika arrazako behi eta zezenen lehiaketa jokatu zen igandean eta astelehenean. Biz- kaiko, Gipuzkoako eta Nafarroa- ko 24 abeltzainek 120 buru aur- keztu zituzten lehiaketara. Tar- tean Ricardo Palacios lakuntza- rra. Lehiaketako 14 eta 30 hila- bete arteko zezenen mailan lakuntzarrarenak hirugarren saria lortu zuen.





Etxarri Aranazko plaza zuhaitzik eta apenas kioskorik gabe, atzo.

## Etxarriko plazan estalopea jartzeko lanak hasi dira

Estalopea Olentzerok mustutzea aurreikusten da. 109.361,53 euroko aurrekontua dute (BEZ kanpo)

### ETXARRI ARANATZ

Iragarri bezala, feriak despeditu ondoren hasi dira plazan estalopea jartzeko lanak. Jamsar enpresaren aurreneko egitekoa, ikusgarriena eta herritarrak gehien ukitu dituen, plazako 10 zuhaitz moztea izan zen. Asteartean egin zuten lan hori. Ondoren etorriko dira 350 metro karratu izanen dituen estalopea egiteko lanak. Metalezko 16 zutabeen gainean egurrezko egitura duen teilatua jarriko da. Egiturak, gutxi gorabehera, zuhaitzen altuera izanen du. Estalope berriak led argiztapena izanen du eta zurezko egiturak akustika hobetzen lagunduko du.

Estalope berriak kioskoa ere integratuko du. Kioskoaren gaur egungo teilatua kendu egingen da, 50 bat cm jaitsi eta estalopearenarekin dena bat bihurtuko da. Egungo sei zutabeak teilatu

berriari eutsiko diote. Gainera, diametroan 30 cm irabaziko ditu, guztira 50 metro karratuko azalera izanik. Kioskoaren perimetro guztia zurezko listoiekin forratuta egonen da. Listoi horietako batzuk luzeagoak izanen dira eta goiko hesia bilakatuko dira. Musika-tresnak eta gailuak jartzeko eta zintzilikatze aurreikusitako da. Azkenik, eskailera alde batean izanen da.

Lanak despeditu ondoren kioskoa iparraldera edo hegoaldera, bi norabideetan erabiltzeko aukera izanen da. Normalean ekitaldiak udaletxera begira, hegoalderantz, egingen dira. Baina euria egiterakoan iparralderantz begira egingen dira ekitaldiak, jendea estalopean dela. Ekitaldiak bi noranzkoetan egingen direnez, kioskoaren iparreko eta hegoko hesia jarri eta kentzeko izanen da, zama-lanak egiteko erraztasunak emateko.

## Doneztebe-Irurtzun bizikleta bideak ukitutako okupazioa

Doneztebe-Irurtzun bizikleta bidearen Udalez gaindiko Eragina duen Proiektu Sektorialean jasotzen diren lanek kaltetutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzea premiazkoa izendatu du Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran. Proiektu horren helburua Doneztebe eta Irurtzun bizikleta bidez lotzea da. Hau da, Plazaola eta Bida-

soako bide berdeak lotzea. Bizikletendako aurreikusitako egitasmo hori Nafarroako Euroveloren zati bat egitea da, Iruñatik Endarlatsara. Guztira 52 km dira.

Etorkizunean Ederbidea bizikleten egitasmoko zati ere izanen da: Baiona, Donostia eta Iruñea bide berdez lotuko duena. Ederbidearen barne kokatzen den ekintza horren aurrekontua 236.845 eurokoa da eta Europako Poctefa programaren finantziakoa da.

**EUSKARALDIA**  
11 EGUN EUSKARAZ  
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

**IZEN-EMATEA**  
[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)



# Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2018

Aurten, lanak  
aurkezteko  
bi era dituzu:  
**idazlan edo  
bideo bidez;  
zuk aukeratu!**

## Idazlan bidez, oinarriak

ikusi eta lanak bidaltzeko, sartu:

[Berria.eus/mendietabidaiakronika2018](http://Berria.eus/mendietabidaiakronika2018)

## Bideo bidez, oinarriak:

- Aurkezten diren bideoek originalak eta argitaragabeak izan behar dute.
- Bideo bakoitzak gutxienez **5** minutu eta gehienez **20** minutu izan beharko du.
- Bideoek euskarazkoak izan beharko dute. Euskaraz ez den edukirik balego, euskarazko azpidatziak izan beharko ditu.
- Bideoak online sistema bidez ([tori.eus](http://tori.eus) edo [wettransfer.com](http://wettransfer.com)) bidali behar dira [bideoak@berria.eus](mailto:bideoak@berria.eus) helbidera, **azaroaren 11 baino lehen**. Gaila: Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa.
- Bideoarekin batera, hauek ere bidali beharko dizkiguzue:
  - Bideoaren fotograma bat .jpeg formatuan
  - Izenburua
  - Sinopsia edo laburpena
  - Egileen izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa.
  - Baloratuko da:
  - Kalitate artistikoa
  - Gidoiaren originaltasuna
  - Edizio lanaketa
- Jasotako bideoak **BERRI**aren Youtubeko kanalean jarriko dira, eta **BERRI**aren webgunean publikatuko. Bideoa egin duenak izango du bidalitako lanaren edukiaren ardura.
- **BERRI**ak eskumena izango du lanak lehiaketatik kanpo uzteko; lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu mezu iraingarriak, giza eskubideak urratzen dituztenak edo sexistak darabiltzaten bideoak.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia betez, parte hartzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak **EUSKAL EDITOREA SL** enpresaren tratamendu sistemetan jasoko direla, horixe baita Tratamenduaren Erantzulea. Hala, parte hartutako lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, soilik.

## SARIA-Idazlana:

**Irabazlearentzat.** Mendiak eta Herriak mendi gidari elkartearen oparia, lagun batentzat.

### ZERMATT INGURUKO GOI MENDIKO ZEHARKALDIA

Breithorn (4.165 m) - Castor (4.226 m) - Parrotzspitze (4.436 m) - Zumsteinspitze (4.563 m)

### EGITARAUA:


1. Alpeetarako bidaia. Norbere autoan. Gaba Saas Grund herian, Suitza. Mantenu erdia.
2. Theodul aterpea (3.200 m). Saas Grund - Tasch, gure autoan. Tasch - Zermatt, taxiz. Teleferikoa Zermatt - Trockener Stegg (2.700 m). Trockener / Rifugio Theodul (3.200 m). Theodul glaziarrean barna, 1,30 ordu. Mantenu erdia.
3. Breithorn (4.165 m eta 4.160 m). Theodul / Breithorn lepoa, 1,30 ordu. Breithorn lepoa / Breithorn (4.165 m eta 4.160 m), bi gailurren arteko zeharkaldia eginez. Guida Val d'Ayas aterpera (3.200 m). Mantenu erdia.
4. Castor (4.226 m). Val d'Ayas / Castor (4.226 m), 4 ordu. Castor gailurra / Quintino Sella aterpea (3.400 m). Bi ordu. Mantenu erdia.
5. Parrotzspitze (4.436 m). Quintino Sella aterpea / Liskjoch lepoa / Ludwigshöhe (4.341 m), Parrotzspitze (4.436 m) gailurak. Punta Gnifetti - 4.556 metrora igoko gara, non Margerita aterpea dagoen, Alpeetako aterperik altuena—. Mantenu erdia.
6. Zumsteinspitze (4.563 m). Margerita / Zumsteinspitze (4.563 m), ordu bat. Greengletscher glaziarretik behera egingo dugu, Mte Rosa aterperaino (2.800 m). Mantenu erdia.
7. Zermatt eta Saas Grunderako itzulera. Mte Rosa aterpea / Greengletscher glaziarra / Rottenboden tren geltokirako igoera. Trenez Zermattera, Zermatt - Tasch - Saas Grund
8. Etxerako itzulera

## SARIA-Bideoa:

**Irabazlearentzat.** ATXASPI HOTELEAN **Relax asteburu-pa-sa, bi lagunentzat.**

**Parte hartzaile guztien artean, APALATEGI KIROLAK dendan gastatzeko 100 euroko 3 bonu.**

### BABESLEAK:



ATXASPI HOTELA



APALATEGUI  
DEPORTEAPALATEGUI.COM



# Argiteria publikoa berritzearen alde egin da

Olatzagutiko Udalak martxan jarritako parte-hartze aurrekontuetako hamar proposamenen artean aukeratu da argiteria. Udalaren asmoa da aurten eta heldu den urtean herriko argiteria guztia berritzea

## OLATZAGUTIA

Olaztiarrek udalaren 20.000 euroko poltsa zertara bideratu aukeratzeko aukera izan zuten pasa den astean. 10 proposamen zituzten aukeran. 122 boto izan ziren parte-hartze prozesuan eta babes gehien jaso zuen proiektua argiteria publikoa modu eragin-korragora aldatzea izan da. 45 boto jaso zituen emandakoen % 36,89. Estreinako aldia izan da Olatzagutiko Udalak parte-hartze aurrekontuen deialdia egin duena. Mikel Azkargorta Boal alkateak esan digunez, "espe-rientzia polita izan da. Nahiko ongi atera da. 93 proposamen jaso genituen eta horien artean aukeraketa egin behar izan genuen. 20.000 euroekin egin ez zitezkeenak baztertu genituen eta beste batzuk bateratu". Beraz, errepikatu egingen dute.

Azkargortak azaldu digunez, "asmoa da aurten bertan argiteria aldatzen hastea. Behintzat zaharrena dena". Nafarroako Gobernuak 113 milioi euro inbertsio jasagarrietara bideratu nahi ditu eta deialdi horretara aurkezteko nahia dute udalean. "Jasoz gero, lanak abenduaren 31 baino lehen eman beharko genituen, eta heldu den urtean egingen lirateke". Herriko argiteria guztia LED teknologiatik aldatzea da asmoa, kontsumoa murriztu eta faktura txikitzeko. Helburu hori lortzeko ez dute baztertzeko diruzaintzako garrantzirik. Baina legeek ezarritako gastu muga eta bestelakoak kontuan izan beharko dituzte.

## Lan gehiago

Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegituren Planeko diru-laguntza deialdian ez zen onartu Inguraketa kaleko urbanizazioa bukatzea eta Arrangotik jubila-tu elkartearen parera espaloia egitea. Gobernuaren inbertsio jasagarrien deialdiaren zain



Olatzagutiko udaletxearen begiratokia. ARTXIBOA

## UDALETXEKO BEGIRATOKIA "NEGU GORRIA HASI AURRETIK" KONPONDU NAHI DA

daude, hori egiteko aukera izan dezaketelakoan. Onartuta dagoena udaletxeako begiratokia berritzeko diru-laguntza da. Lanak, berez, heldu den urtean egin beharko lirateke, baina aurten hasteko baimena dute.

## Olatzagutiko 2018ko parte-hartze aurrekontuen emaitza

Proposamena	Botoak	%
Argiteria publiko eraginkorragora aldatu (LEDA)	45	36,89
Horma hilobiak	16	13,11
Kiroldegiko gelak	11	9,02
Inguraketa kaleko urbanizazioa bukatu	11	9,02
Udal igerilekuen hobekuntzak	11	9,02
Kiroldegian hobekuntzak	7	5,74
Kirol-instalazioen hobekuntzak	7	5,74
Hiri altzariak	7	5,74
Igerilekuetako aldagelak berritu	4	3,28
Eguberriko argi berriak erosi	3	2,46
<b>Guztira:</b>	<b>122</b>	<b>100,02</b>



Irurtzungo denden erabilpena sustatu nahi dute. ARTXIBOA

## Irurtzunen erosteak saria dakarrela gaztigatu du udalak

Dendek eskaintzen dituen gertuko zerbitzua bizirik mantentzea eta haietan erosteagatik sarien zozketa dago

## IRURTZUN

Irurtzungo Udalak *Herrian erostiz denok irabazle* kanpainaren bigarren zatia martxan jarriko du heldu den ostegunean. Uda-berrian izan zen kanpainaren lehen zatia eta, orduan bezala, herriko 28 dendetan erosketak egiten dutenek zozketa batean sartuko dira: 50 euroko txekoa herriko dendatan gastatzeko. Ostegunetik azaroaren 9ra erosketak egiten dituztenak sartuko dira zozketan. Sarituak zein diren sanmartinen ondoren, azaroaren 12an jakinaraziko ditu udalak.

Udaletik irurtzundarrei herrian erostearen abantailak azpimarratu nahi dizkiete. Lehena autoa hartu behar ez izateak dakarren lasaitasuna eta erosotasuna da. Bigarrena, herriko dendarien hurbiltasuna. Hurrena, azken orduko beharra izanda, herriko dendetan konponbi-

dea opa daitekeela. Eta, azkenik, Irurtzunen bizitzan parte-hartzearen sentimena pizten duela herrian bertan erosteak.

Irurtzunen bertan erosketak egiteak, udal arduradunen iritziz ziurtatzen du, batetik, estres gutxiago. Bestetik, adeitasunik hoberena. Eta horiei lotuta, herriaren garapenean parte-hartzea eta irurtzundarrekin erlazioak hobetzea. Horregatik, Irurtzungo Udaletik herrian bertan erosketak egitera gonbidatu dute.

Bestalde, Inasa zena industrialde bihurtzeko urbanizazio lanak despeditzearekin daude. Ingu-ruan Saprem, Manfisa eta Sapa enpresek euren lantegiak handitzeko eremuak eskuratu dituzte. Transportes Plazaolako kamioiak joan-etorrian dabilta. Embalajes Breton enpresa lantegia jasotzen ari da eta Puestas Dile lantegia egokitzen ari da oraintxe.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETKEA

**Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta**

Asteleheneetik ostiralera  
**Eguneko menua  
9€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

**Sorginak**  
taberna

**LAKUNTZA**

948 576 357



# Hedabideek lupa Altsasun jarri zutenekoa

Ferietako liskarra izan zela bi urte beteko dira astelehenean. Adurrek, Jokinek eta Oihanek 700 egun eginen dituzte preso etzi. Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek 128 egun egin dituzte preso, aurretik beste 37

## ALTSASU

Festa egun bateko goizaldean, lanordutik kanpo zeuden guardia zibilen eta herritarren arteko liskarra taberna batean hasi eta kalean segitu zuen. Berehalako ondorioa izan zen batzuk ospitalean bukatzea eta beste bi atxilotuta. Bere bertsioa zabal-tzen lehena Espainiako Gobernu Ordezkaritza izan zen: “herritar talde handi batek erasotu zituen”. Hedabide batzuk erasotzaileak “40 edo gehiago” zirela zabaldu zuten gero. Batekoen eta beste-koen erreakzio soka luzea etorri zen ondoren.

Eta aparteko ezer gertatzen ez bada herrietan agertzen ez diren makina bat hedabideek Altsasurako bidea hartu zuten. Altsasuko auzia izanen zenak prentsa orri eta irrati eta telebista ordu asko eta asko bete zituen 2016ko lastailaren 3. aste hartatik aurrera. Hainbesterakoa altsasuar-rrak harriduratik amorrura pasa ziren; liskarraren bertsio bat edo beste onartuta ere, hedabideetan herriaren irudi faltsua eta irrealia jaso zutela uste zuten askok eta askok. Horregatik, gerora hainbatek euren etxeetan *Utzi Altsasu* bakean banderolak zintzilikatu zituzten.

Liskarrak Altsasuko auzia sortu eta zortzi gazte altsasuar



Joan den astean Altsasuko Gurasoak Eusko Jaurlaritzan egon ziren.

Espainiako Auzitegi Nazionalen auziperatzea ekarri zuen. Gaur egun haietako zazpi preso daude Iruñeko eta Zaballako espetxeetan, aurretik Madrilen egon ondoren. Adurrek, Jokinek eta Oihanek domekan 700 egun eginen dituzte preso. Urte bat eta 11 hilabete beteko dituzte preso etzi. Altsasukoak aske herri plataformak hileroko 14ero atxiloteten eguna gogorarazteko ekimenak antolatzen ditu, eta domekan gauza bera eginen du. Iortia kultur gunearren parera deitu du, 19:00etarako.

Han lehenik atxilotuen askatasuna aldarrikatzeko kontzentrazioa eginen da: *kriminalizazioaren gainetik, aurrera Altsasu!* Horren ondoren kultur eraikinaren pareta bat pantaila erraldoi bihurtuko da eta plataformak bi bideo emanen ditu. Alde batetik, “duela 2 urteko jazarpen eta kriminalizazio kanpainaren inguruko bideoak” emanen dituzte. Bestetik, “kriminalizazio kanpaina horren inguruko altsasuarren iritziak” jasotzen dituen bideoa emanen dute.

## Presoen urruntzea salatzeko hitzorduak

Hilaren 20an Donostian deitutako manifestaziora deitu dute eta autobusak antolatu dituzte

## SAKANA

Orain Presoak dinamika deituta makina bat etxarriarrek eta sakandarrek bat egin zuten Etxarri Aranatzan larunbat iluntzean. Etxean nahi ditugu lelopean preso en urruntzearen kontrako giza katea egin zuten plazan. Sare herritarrek gogorarazi duenez, 40 preso nafar daude Frantzia eta Espainiako kartzeletan, haietatik 39 euren etxeetatik ehunka km-tara urruntuta, tartean 6 etxarriar. Haiak bisitatzeko senideek eta lagunek, bataz beste, 650 km egin behar dituztela eta errepidean dagoen istripu arriskuaz eta horren ondorioez (16 hildako) gaztigatu du. “Milaka kilometrotara urrunduak diren eta giza eskubideak urratuak zaizkien euskal preso en egoerari irtenbidea ematea” eskatu zuten.

Sakandarrei beste hitzordua baten berri emateko erabili zuten larunbatekoa: Donostian, hilaren 20an, 17:00etan abiatuko den Orain presoak manifestazioa. Indarrean den espetxe politikaren aldaketa beharra aldarrikatuko dute. “Herritar oro gonbidatu nahi dugu gurekin batera bakearen eta elkarbizitzaren norantzan ekitera eta espainiar gobernuari urratsak determinazioz emateko, hitzetatik ekin-tzetara igarotzeko, eskatzera”.

Manifestaziora autobusez joan nahi duenak honako tokietan eman dezake izena: Irurtzunen Pikuxar tabernan, Lakuntzan Sorginak eta Apur tabernetan, Arbizun Aralar, Arrauts, Argi Bidea eta Baxerri tabernetan, Etxarri Aranatzan Xapatero eta Lekuona tabernetan eta Altsasun Biltoki eta Lezea tabernetan. Etxarri Aranazko igandeko mendi lasterketan hainbat korrikalarik bat egin zuten manifestazioaren deialdiarekin eta helmugan kartelarekin edo preso en banderolarekin sartu ziren.

## Berrerabilpenaren kulturaren plaza bihurtu zen Irurtzun

Horretan bihurtu zen beste behin Irurtzongo Foru plaza igandean. Itxipuru taldeak antolatuta udazkeneko bigarren eskuko azoka egin zen. Udako azokan probatu ondoren, udazkeneko azokan ere formatu berriaren alde egin du Itxipuruk. Eta balorazio “ona” egin du, “jendea badoa animatzen”. Izan ere, azokan postua jartzeko aukera edozeini eman diote, “azoka zabaltzeko eta jendeak azoka bere egin”. Hala berrerabilpenaren kulturari bultzada emateko. Igandean 10 postu jarri ziren. Eguraldiak ez zuen lagundu. Itxipurukoek arropa jarri zuten salgai eta lortutako dirua El Salvadorako Cinquerako basorako izan zen.

## Satrustegiko txondorak aterpea mustu du

Udan satrustegiarrek ikazkinaren ogibidea biziberritu zuten. Bi txondor egin zituzten. Haietako bati Arakilgo Egunean su eman eta handik tona erdi ikatz atera zuten. Beste txondorra ez zuten osorik egin, erdia baizik. Hala, Satrustegi bisitatzen dutenek garai bateko ikazkintza nolakoa zen ezagutzeko aukera izanen dute txondor erdi horren bidez. Arakilgo Udalgargibide taula ondoan jartzeko asmoa du. Bitartean, Iturraskariren bidez estalpea egin diote txondorari. Materiala kontzejua jarri zuen. Bata eta bestea egiten aritu ziren elkartu eta estalpea mustu zuten herenegun, otamen ederrarekin.

## Amiantoaren eraginez Sunsundeguiko langile ohi hila

Amiantoak eragindako beste heriotza bat izan zen ostiralean. Sunsundegui enpresan produktua horrekin lan egin zuen Juan Mari Goikoetxeak. Amiantoarekin lan egin eta arnastu zuten 26 langile ohi hil dira aurten Hego Euskal Herrian. LAB-ek amiantoak eragindako gaixotasun eta ondorio larriei laneko izaera aitortzea exijitu du.

## Intsumisioak Iruñean

Iruñeko kartzela zaharraren lau pareta artean denboraldi luzeak egin zituzten intsumisioak, haiei bisitan joaten zirenak eta hainbat modutan babesa ematen zieten senide, lagun eta erakunde antimilitaristetako ordezkariak. Askok izan ziren Iruñeko Intsumisio plazaren mustutuzera joan ziren sakandarrak. Bazkarian ibarreko 20 bat intsumisio izan ziren.



JAXINTO G. VINIEGRA



# "Denendako txistorra soberan egonen da"

**MONIKA ETXEBARRIA ARIZNABARRETA ZINEGOTZIA**

Igandean ospatuko da X. Txistor Eguna. Atzorako eta biharko ere ekitaldiak antolatu dituzte. Arbizuko Udalak parte-hartzeko gonbidapena egin du

**Alfredo Alvaro Igoa** ARBIZU

**Txistor egunak 10 urte. Ospakizuna koxtortzen ari zaizue!**

Bai, bai. Batzuetan gezurra dirudi. 10. urteurrenara ailegatu gara. Hasierako urte haien urduritasuna, gauzak nola aterako ziren eta horiek pixka bat pasata, baina, emozioa, berdin. Emozioak hor segitzen du. Guretako ere egun inportantea delako.

**Zergatik erabaki zuen Arbizuko Udalak txistorrari eskaintako egun bat antolatzea?**

Garai hartan zinegotzi zegoeneko batekin hizketan egon nintzen aurrekoan eta galdetu nion: zergatik txistorra? Garai hartan



Monika Etxebarria, Karmele Marañon eta Ainara Goikoetxea aurkezpenean.

herritar batzuek eskatu zuten herriari proiektzio pixka bat emanen zion zerbait egitea. Buelta batzuk eman ondoren ikusi zen txistorrak betetzen zituela behar ziren baldintzak. Alde batetik, etxe guztietan egon den jaki bat da. Eta garai batean egin ere egiten zena. Modernizatzen joan da. Garaietara egokitzen joan da. Gainera, ez da kasualitatea, hemen ere izatea ekoizle handi xamarrek. Bost produktore daude. Bereziki hiru produktio handi xamarra egiten dutenak. Bide horretatik jo zuten. Eta, nik uste, erabaki egokia izan zela.

**10. edizioaren atarian, proiektzio horretan asmatu da? Zein balorazio egiten duzue?**

Nik uste dut baietz. Niri galdezen didatenean esaten dut iruditzen zaidala eguna finkatu egin dela. Txistorrak bere tokitoxoa egin du elikaduraren inguruan antolatzen diren festa horietan. Eta, normala den bezala, aldatzen joan da; 10 urte pasa dira. Hasieran pixka bat zalantzekin-eta zegoena nik uste dut gaur egun egutegian toki nahiko finkoa duela.

**Programazioa ere finkatu xamar dago.**

Bai. Egia esan, aurtengoa 10. Txistor Eguna da, ba, zerbait berezia egin beharko genuke... Baina Txistor Egunean bertan baino gehiago agian aurreko egunetan... zerbait osagarria. Baina, berez, Txistor Eguna nahiko bete dago daukanarekin. Herri txiki bat izateko gauza interesgarriak izaten dira egun horretan.

**Arbizu mapan jarri du Txistor Eguna?**

Bai, txistorrak eta Txistor Eguna. Biak. Nik uste dut jendea hasi dela ezagutzen. Nafarroan, noski. Gipuzkoa bertan dauka, eta ere bai. Baina ikusten da gero eta jende gehiago etortzen dela urrutia egiten da.

**Ezagutzera bai herria, bai produktua.**

Bai. Izan ere, hemen protagonistak biak dira: txistorra, baina baita ere gure herria, gure jendea, Arbizu eta arbizuarrak. Eta horri, gainera, hasieratik eman diogu garrantzia: herriak parte-hartzea, auzolanez egiten dira lan asko eta guretako erakusleho moduko bat da.

**Arbizu** Usadioaren zaporea  
Embutidos y patés

Reyno Gourmet

www.embutidosarbizu.es  
948 460 628 · Utzubar industrialdea, E kalea 1-2 · Arbizu



## Pintxo lehiaketako irabazleak

2009 Izar Ondo  
2010 Karrika  
2011 Olatzea  
2012 Olatzea  
2013 Baxerri  
2014 Arrauts taberna  
2015 Arbizuko kanpina  
2016 Karrika  
2017 Andra Mari ikastola

X. URTEURRENA  
**TXISTOR EGUNA**  
ARBIZU, URRIAK 14

Arbizu WAKET





### Egunetik kanpo zerbait egin nahi zenutela aipatu duzu. Atzo mahai-ingurua.

Egia esan, 10. Txistor Eguna izanda, zerbait osagarri egin nahi genuen. Aspaldian gai hauek boladan daude: elikadura, burujabetza, elikadura nola hobetu, bertako produktuei garrantzia gehiago eman, produktu ekologikoak... Gai interesgarria zenez, pentsatu genuen mahai-inguru hori antolatzea. Gero ere ahate txiki bat izan zen, bertako produktuekin eta ekologikoekin. Gustura egon ginen.

### Bezperarako, biharko ere zerbait baduzue.

Azken urtetan arratsaldea pixka bat girotzea eta, bezpera denez, hori pentsatu genuen. Aurten ere musika emanaldi bat izanen da. X. Txistor Eguna denez, haurrentako puzgarri batzuk jartzea pentsatu dugu ere. Horrekin batera, argazki erakusketa mustuko dugu, Txistor Egunak 10 urte hauetan egindako ibilbidea erakusten duena. Eta horrekin igandean bete-betean sartzen gara.

### Txerria ardatz.

Horretan ere festa aldatzen joan da. Goizean txerriak eta txerri hiltzeak izaten zuen protagonismoa. Hori, pixka bat, alde batera uzten joan gara. Eta gaur egun protagonismoa produktuek dute. Batetik, txistorra bera, noski. Beste postu batean tripota egiten da, ukendu batzuk, txantxigorrrak... Txerriatik datorrigun guztia. Azokak Kale Nagusi guztia hartzen du. Artisautzako produktuak izateari garrantzia ematen zaio printzipioz, eta denetarik aurkitu daiteke. Gero eta arrakasta handiagoa du. Parte hartzeko es-

kaerak jasotzen ditugu. Giro polita izaten da.

### Zotolak segitzen du?

Han urte osoan egoten da. Hor txerriak jartzen ditugu, haiek ikusteko. Gero, ahaztu gabe, herriko gaztagile batzuk gazta egiten egoten dira. Hori ere ikusgarria da.

### Txistor Egunaren epizentroa plaza da.

Plazan gertatzen da inportantea esanen nuke. Hor banatzen da txistorra. Gure produktoreek jartzen duten txistor hori. Ehun kilo inguru izaten dira urtero pintxoetan banatzen direnak. Hor egoten da txistor pintxoaren lehiaketa, hamargarren lehiaketa aurten. Eta bitartean musika. Aurten abesbatzak ere emanaldi txiki bat eskainiko du. Trikitilariak herrian gora eta behera ibiliko dira. Pintxo lehiaketan oraindik ez dakigu zenbat jende aurkeztuko zaigun. Zortziren bat izanen direla uste



dut. Aurten epaimahaian egonen dira aurreko urteetan gurekin izan diren Javier Diaz (Alhambra jatetxea), Fernando Flores (Enekorri jatetxea), Katrin Ginea (Geltoki ekimeneko koordinatzailea), Ainhoa Mañeru (Borda jatetxea) eta Begoña Zestau (Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuko teknikaria). Zestauri proposatu genion iruditzen zaigulako urte hauetan egin duen lana, Munduko Arrozak eta halako egunak antolatzten... oso interesgarria da. Eta erakusten duela hain gauza oinarritzak dena, jana eta hori, horren inguruan ere elkartasuna antola daitekeela, eta garai hauetan oso beharrezkoak direla ekimen horiek.

### Azoka zein ordutan zabaltzen da? Noiz asten dira pintxoak zerbitzatzeko?

Azoka 10:30 aldera zabaltzen da. Urte hauetan ikusi da jendea, normalean, beranduxeago hasten dela gerturatzen. Baina, beno, 10:30erako postu guztiak prest egoten dira, zabalik. 46 salmahai daude. 11:30 aldera-edo, txistor-pintxo lehiaketako epaimahaiak bere tokia hartzen du eszenatokian, orduan hasten dira pintxoak ailegatzeko.

### Txistor-pintxoak ardoarekin batera dasta daitezke, ezta?

Urtero bezala txistor-pintxo eta ardoa 2 euroan banatuko da. Hor dago aukerarik onena bertako txistorra probatzeko.

### Erosketak egiteko aukera noiz arte izanen da?

Gutxi gorabehera 15:00ak arte, azoka normalean orduan ixten da. Bitartean erosi, jan, argazki erakusketa ikusi... nik uste dut goiz polita pasatzeko aukera dagoela. Ez dut ahaztu nahi aurten beste berritasun izan dela hamargarren urteurrena ospatzeko: literatur lehiaketa antolatu dugu (15 lan aurkeztu dira). Txistor Egunean jakinaraziko da zein izan den irabazlea. Hori ere interesgarria da. Gero, aurrerago, horrekin argitalpentxo bat aterako dugu. Eta espero dugu hori ere hurrengo urteetan mantentzea.

### Eta despeditzeko, musika.

Arbizun Xapiru trikitixa eskola daukagu. Eta batez ere Nafarroako Trikitilari Elkartearen arima den Patxi Agirre, antolatzeko dute Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia. Aurtengoa hirugarrena da. Arratsaldea betetzeko modu polita da.

## Arbizuko Txistor Eguneko azokan izanen diren ekoizleak

Izena eta Abizenak	Produktua
Ainhoa Aristizabal Irigoien	Ogia
Aitor Mendoza Sanzo	Txerrikiak
Alazne Juaniz	Poltsak
Altsasukoak aske	Kamisetak
Anastasio Razkin harategia	Txerrikiak
Arbizu hestekiak	Txerrikiak
Artilezko Hodeiak	Artilezko gauzak
Cristina Baos Ania	Bitxiak
Dulces Virgen Ujue	Garrapiñadas
Edorta Murua Ugarteburu	Euskal ikurrak
Elene Fusté Granell - Luhei art	Arropa
Elvira Barceló	Bitxiak
Enara Insausti	Argazkiak
Fernando Gozotegia	Pastelak
Fernando Zubiria eta Ines Jimenez	Piper erreak
Flores hestekiak	Txerrikiak
Gaizka Saez de Vicuña Martinez	Zurezkoa
Gastaka Bárbara	Pastelak
Ion Ortiz Muñoz	Txokolata
Irular	Marmeladak
Jeingenekoa	Esnekiak
Jerusalem Asurmendi Gorraiz	Miniaturak/Ukenduak
Juananeko gazta	Gazta
Katealde	Ahatekiak
Laket artesanos	Txerrikiak
Legarbe	Karakolak
M <sup>a</sup> Angeles Estanga Reparaz	Baba/Arrautzak
Mañekoazpi	Pastelak
Maria Esparza	Bitxiak eta zeramika
Marta San Migel	Euskal panpinak
Mitxel Zenarrubeitia Unamuno	Barazkiak
Ollaondoa	Arrautzak eta ahuntz gazta
Otero pilotak	Pilotak
Pastas I. J. Vidaurre	Pastelak
Pastelería Goiuri	Pastelak
Paul Erdozia Azkorra	Bitxiak
Pedro M <sup>a</sup> Olea Armendariz	Zurezkoa
Postiñeneko gazta	Gazta
Sandra Cliville Fernandez	Artilezko arropa...
Sara Redondo	Artilezko lepokoak
Sojo Natura	Xaboiak-kremak
Tomas Mauleon Goñi	Zurezkoa
Txalaparta argitaletxea	Liburuak
Txus Gruzeta Otaduy	Zillarrezko bitxiak
Vialde Gurea sl	Eztia
Xabier Iturrioz	Oinetakoak



## 702.000 kilo txistor ekoizten dira urtero Arbizun

Hiru enpresa ekoizle handienek munduan barna zabaltzen dute euren txistor ekoizpena

### ARBIZU

Embutidos Arbizu, Flores Hestekiak eta Laket Artesanos enpresak dira Arbizuko txistor ekoizle handienak. Aurrenekoa k1948an sortutako harategi batean du jatorria. Egungo kudeatzailearen aitona-amonak zabaldu zuten. Bigarrenak XX. mende erdialdean sortutako beste harategi batean du sorburua. Egungo arduradunen aitak zabaldu zuen hura. Hirugarrenak, berriz, 1915ean Altsasun sortutako harategi batean du jatorria.

Aipatutako hiru lantegietan 22 pertsonak lan egiten dute txistorra eta beste produktu batzuk ekoizten. Eta astero 13.500 kilo txistor egiten dituzte. Hau da, 702.000 kilo txistor urtean. Ekoizpen hori Euskal Herrian, Suedian, Norvegian, Ingalaterran, Belgikan, Danimarkan, Holandan, Frantzian, Espainian,



Hainbat produktu erosi ahal izango da.

Hungarian, Filipinetan, Vietnamen, Laosen, Txilen, Hong Kongen, Dubain, Dominikar Errepublikan... saltzen da.

Batzuek ekoizpenaren zati handiena Euskal Herrian saltzen dute, beste batek, berriz, kanporako ekoizten du.

## Egitaraua

### Lastailak 13, larunbata

- **16:30ean** Haurrendako puzgarriak, plazan.
- **19:00etatik 20:30era** Argazki erakusketa, udaletxeko batzar gelan.
- **19:30ean** Musika emanaldia, plazan.



### Lastailak 14, igandea. Txistor Eguna

- **10:00etan** Diana Arbizuko fanfarrearekin.
- **10:30ean** Txistor Egunaren hasiera eta azokaren irekiera.
- **11:00etan** Nafarroako trikitilarien bilkura, Xapiru eskolako antolatua.
- **11:00etatik 15:00etara** Argazki erakusketa, udaletxeko batzar gelan.
- **11:30ean** X. Pintxo lehiaketaren hasiera.
- **12:00etan** Arbizuko abesbatza, plazan.
- **13:30ean** X. Pintxo lehiaketaren eta I. Letrak ahora literatur lehiaketaren sari banaketak.
- **15:00etan** Azokaren itxiera.
- **17:00etan** III. Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia.

Goizean zehar ardoa eta pintxoak plazan, azoka kale Nagusian eta txerriaren inguruko produktuen erakusketak egonen dira: tripotak eta txistorrak egitea, txantxigorriak, ukenduak, sendabelarrak... Juananeko gaztagileek gazta egingen dute. Argazki erakusketa udaletxeko batzar gelan.



Juan Manuel Vicente sariarekin. TEVA

## Josefina Arregi klinikaren proiektu bat saritua

Ikasleak eta adinduak harremanetan jartzen dituen ekimena da saria jaso duena

### ALTSASU

III. Osasungintza humanizatze sariak astelehenean banatu zituen Teva botika-enpresak. "Osasungintza gizatiarraren eta gaixoen bizi kalitatea hobetzeko ekarpena" egiten duten 11 ekimen saritu zituzten. Saritutako ekimenen artean Josefina Arregi klinika psikogeriatricoa dago. Zehazki ikastetxeekin garatzen duen eta haurrak eta gaixo adinduak harremanetan jartzen dituen proiektuagatik. Enpresako arduradunek honela argudiatu zuten saria: "adinduei ilusioa bueltatzeagatik. Eguneko zentroa adinduen eta haurren topagune bihurtzeagatik. Dementzia duten gaixoen integrazioa sustatzeagatik". Proiektua garatzeko 3.000 euroko saria jaso zuen klinikak.

Haurrei begira honako helburuak lortu nahi dira: alde bategatik, Alzheimerre ezagutzea gaitzak duen estigmatizazioari aurre egiteko eta, bestetik, gaixoei nolako harremana izan behar duten ikastea eta zer beharko duten ikusteak. Adinduak haurrekin egotean lortu nahi dena da: adinduen mugikortasuna laguntzen duten jardueren bitartez estimulazio fisikoa eta funtzionala sustatzea; estimulazio kognitiboa; estimulazio emozionala eta soziala". +guaixe.eus



TRADIZIOAREN ZAPOREA  
— 1915 —

# LAKET

NAFARROAKO

## Txistorra

**1. Saria**  
XVI. Santo Tomas Txapelketa  
DONOSTIA

**Finalista**  
XII. Txistorraren Nafar Txapelketa  
IRUÑA

Laket Artesanos S. L.  
Utzubar Industrialdea C/ AP-10 · Arbizu  
948 461 882 · direccion@laketartesanos.com  
www.laketartesanos.com



# "Zortzi domina, oso pozik nago"

**EKHI CONGIL MENDIOLA MONOZIKLISTA MENDIA**

**MONOZIKLISMOA** Hego Koreako Ansan jokaturako Unicon 19 Munduko Monoziklo Txapelketetan 8 domina lortu zituen etxarriarrak. "Izugarrizko esperientzia" izan zen

**Maidar Betelu** ETXARRI ARANATZ

**Abuztuan Hego Korean jokaturako Unicon 19 Munduko Monoziklo Txapelketan guztira 7 probatan lehiatu zinen. Nola ibili zinen?**

Beroa eta hezetasun handia zegoen, baina ongi ibili nintzen. Errepideko 10 km-ko proban bigarrena izan nintzen, txapel-dunordea, nire mailan lehena. Hurrengo proba mendi jaitsierakoa izan zen, eta erorketa bat tarteko, seigarrena sailkatu nintzen, nire mailan bigarrena. Ondoren cross countryko proba etorri zen, eta 5.a geratu nintzen. Errepideko maratoian (42 km) laugarrena geratu nintzen, ziklokrosean hirugarrena sailkatu nintzen, mendi igoeran 10.a eta 100 km-ko errepideko proba luzean laugarrena. Hiru ordu eta 40 minutu luze eman nituen lanean.

**Kontentu zaude egindako lanarekin?**

Oso oso pozik nago egindako lanarekin eta emaitzekin. Inoiz ez dakizu nola atera behar diren probak; banekien ongi entrenatu nuela, baina ez dakizu gaintzeko monoziklistak zein puntutan dauden. Bi txapelketetan nituen esperantza gehien, 10 km-ko proban eta ziklokrosean, eta hala izan zen. Guztira 8 domina ekarri nituen, 2 domina podium absolutuetan eta gaintzekoak nire mailako sailkapenetan. Emaitza ona da.

**Egun gutxitan gorputzari sekulako astindua eman zenion.**

Bai, asko nabaritu nuen. Amai argazkiak bidaltzen nizkion eta kristoren diferentzia nabaritu zuen txapelketa bitarteko edo ondorengo egunetako argazkiekin, aurpegian aldaketa nabaritzen zidan. Kilometro kopurua baino gehiago zen txapelketak ematen dizun intentsitate hori. Gainera, bero asko egiten



Ekhi Congil Mendiola, Hego Korean jokaturako Monoziklo Mundialetan. EKHI CONGIL

zuen eta hezetasun asko zegoen, 38-40 gradu eta %80ko hezetasuna. Bertakoek esaten zuten duela 100 urte ez zutela halako berorik, bero-bolada zegoen. Proben ordutegiak aldatu behar izan zituzten; oso goizter jarri zituzten, goizeko 7:00etan hasten ziren 9:00ak izan beharrean, beroa ekiditeko.

**Zenbat bildu zineten Hego Koreako Mundialetan?**

Urruti izatean parte-hartzea jaitzi zen, baina hala ere 1.400 luze izango ginen. Gehienak japoniarrek eta alemaniarrek ziren, herrialde bakoitzetik 300 kide pasa; Frantziatik 54 inguru lehiatu ziren, penintsulatik 3, eta horietatik euskaldun bakarra ni. Harritzekoa izan zen txinatarrek joan ez izana, izan ere, Txina eta Japonia dira monoziklista gehien dituzten herrialdeak. Eta Txinatik pare bat joan ziren, Hong Kongetik. Atzean arrazoi burokratiko eta politikoak zeuden.

**Zein da hurrengo erronka?**

Orain atseden hartzen nabil, hurrengo helburua oraindik urruti dagoelako. EC Unicycling Europako Monoziklo Txapelketan aritzea da erronka, 2019ko udan Holandan jokaturako dena. Eta hemendik bi urtera Mundiala izanen da, Italian, Alpeetan, mendiko txapelketendako ezin hobeto.

**Gure inguruan monoziklista bakarra izaten jarraitzen duzu?**

Uste baina monoziklista gehiago gaude, baina askok ibiltzen dakite eta kitto, ez dira probetan aritzen. Hego Koreatik bueltan guraso asko etorri zaizkit euren seme-alabak monozikloz ibiltzen ikasteko interesa dutela eta ea lagundu ahal ote diegan galdeztera. Gabonak bueltan daudela, semeendako opari monozikloa eskatzea buruan dute. Nik lagundu ahal diet zerbait, pautak batzuk eman, baina monozikloan ibiltzen ikastea praktika kontua da; norbera behin eta berriz saiatzea da gehiago. Behin ibiltzen ikasita gauza gehiago erakutsi ditzaket, teknika eta beste. **Monoziklismo irakasle izango zinateke?**

Badaukat gogoia, baina ez dakit nola egin. Magisteritza ikasketak egiten nago, oraindik ez ditut praktikak egin eta halako zerbait egitea ez litzaidake gaizki etorriko. Ikastaro txiki bat egingo banu, uste dut errazago litzatekeela eskatu didaten la-

guntza hori ematea. Oinarrizko monoziklo batek 60 euro inguru balio duenez, laguntzaren bat lortuz eta norberak zati bat jarriz gero, ikastaroa eta gero mundu guztiak bere monozikloa izanen luke. Bigarren eskuan monoziklo asko daude salgai; jende askok kuriositatez erosten ditu eta gero saltzen ditu, gehienetan berri-berriak daudela. Nire lehen monozikloak 70 euro balio zituen. Gaur egungo pedalek kopuru hori balio dute.

**Zenbat monoziklo dituzu?**

Koreara eraman nituen bi monoziklo oso. Idealena izango zen 3 edo 4 eramatea, baina ez zegoen tokirik eta horrekin konformatu behar. Entrenatzeko desberdinak erabiltzen ditut. Egun lauzpabost monoziklo ditut. Pieza batzuk Suitzatik ekarri ditut, beste batzuk Italiatik eta asko lagun baten Madrilgo denda batetik.

**Mundialetako maila hori mantentzeko zer nolako prestakuntzarekin jarraitu beharko zenuke?**

Forma fisiko on bat lortzen denean eta Mundialetan aritu eta gero, orain forma hori galtzea da kontua, hurrengo helbururaino ia urte bat geratzen delako. Gero, ilbeltzetik aurrera berriro entrenatzen hasiko naiz. Buruari ere atseden eman behar zaio, beste gauza batzuk egin. Orain asko ari naiz mendira joaten.

**Hego Korea ezagutzeko tartea izan zenuen?**

Bai, Mundialak bukatuta aste pare bat egon nintzen hura ezagutzen. Aterpeko jendearekin harremana egin nuen, bertakoak ziren asko, eta bertako gauzak erakutsi zizkidaten. Denetatik du Hego Korea: oso polita da, mendi pila bat dauka, parke natural asko, tenpluak... Mundialetan elikadura zaindu nuen, baina oportretan bertako gastronomia probatzeko aprobetxatu nuen.

**Esperientzia, beraz...**

...Oso polita izan da, bikaina. Izan ere, monoziklismoa kirol ederra da, sustatzea da kontua. Ea, nitaz gain, norbait gehiago aritzen den.

**"MONOZIKLOAN INTERESATUAK DAUDENAK ETORRI ZAIZKIT GALDEZKA, LAGUNTZA ESKE"**



## NKJ-en Eskuz Banakako finalak Irurtzunen

**PILOTA** Gaur, ostiralean, 16:00etatik aurrera jokatu dira, Bi Aizpe pilotalekuan

Nafar Kirol Jolasen (NKJ) Eskuz Banakako finalak asteburu honetan jokatu dira. Gaur, ostiralean Irurtzungo Bi Aizpe pilotalekuak lehen mailako finalak hartuko ditu 16:00etatik aurrera, 2. eta 3. mailako finalak jokatu dira San Juanen.



Joseba Ezkurdia eta Victor, asteazkeneko material aukeraketan. ASEGARCE



Joanes Bakaikoa. ARTXIBOA

## Bakaikoa promesen final erdietan

Etxarri Aranazko ferietako igandean jokaturako partidaren, herriko zaleen babesarekin lortu zuen Joanes Bakaikoa Promesen Lau t'erdian aurrera egitea. Aranguren zuen arerio final laurdenetan, eta partida oso lehiatua, azkenean 22 eta 19 irabazi zuen Bakaikoak. Horrela, Promesen Lau t'erdiko finalerdietarako sailkatu da, Jon Ander Peña, Dario Gomez eta Peio Etxeberriarekin batera.

Lau t'erdietako finalerdietako ligaxkan hurrengo arerioa Peña II.a izango du Bakaikoak. Gaurko Legutioko jaialdia ixten duen partidaren arituko dira elkarren kontra. Beste partida astelehenean jokatu dute Dariok eta P. Etxeberriak, Tolosan.

## Lasak eta Irati Igoak galdu, Yanira Aristorenak irabazi

Etxarriko ferietako jaialdia zabaltzen duen partidaren, emakumeen eskupilota partida jokatu zen. Irati Igoa etxarriarrari eta Olatz Ruiz de Larramendiri 14 eta 18 irabazi zieten Yanira Aristorena etxarriarrak eta Olatzen izaba Maite Ruiz de Larramendik. Jaialdiko azken partidaren, Arretxe II. ari eta Adur Lasari 12 eta 22 irabazi zieten Ugaldek eta Erostarbek.

## NKJeko finalak

Nafar Kirol Jolasen Eskuz Banakako finalak gaur Irurtzunen eta bihar Iruñeko San Juan klubean jokatu dira.

### Gaur, ostiralean, 16:00etan, Irurtzunen

- 1. mailako benjaminak: Laso (Oberena) / Baleztena (Aurrera)
- 1. mailako kimuak: Goienetxe (Txaruta) / Rekalde (Oberena)
- 1. mailako haurrak: Garaño (Erreka) / Sanchez (Oberena)
- 1. mailako kadeteak: Azpiroz (Irurtzun) / Iriarte (Larraun)
- 1. mailako jubenilak: Ariztegi (Txaruta) / Oskoz (Oberena)
- 1. mailako 22 urtez azpikoak: Olaetxea (Irurtzun) / Arribillaga (Ardoi)

### Larunbatean, 10:00etan, San Juanen (Iruñea)

- 3. mailako benjaminak: Zabaleta (Aurrera) / Alkorta (Aurrera)
- 2. mailako benjaminak: Ugartemendia (Aurrera) / Balda (Larraun)
- 3. mailako haurrak: Yaniz (S. Fco. Javier) / Gaskue (Ultzama)
- 2. mailako jubenilak: Irisarri (Lagunak) / Pernaut (P.P.S.S.)
- 2. mailako 22 urtez azpikoak: Torrecillas (Beti Onak) / Ayala (Lagunak)

# Joseba Ezkurdia aurrera Lau t'erdian

**PILOTA** Arbizuarrak 22 eta 16 irabazi zion final zortzirenetan Axier Agirreri, Altsasun jokaturako partida deserosoan. Final laurdenetako ligaxkan, gaur, ostiralean, Ezkurdia Victor izango du aurkari, Legution (17:00, ETB1)

Aurreko asteburuan Lau t'erdiko final zortzirenak jokatu ziren. Joseba Ezkurdia txapelketan aurrera egitea lortu du eta final laurdenetarako ligaxkan sailkatu da. Horretarako, ostiralean Axier Agirre bidean utzi behar izan zuen. Eta uste baino lan gehiago egin behar izan zuen, Altsasun jokaturako final zortzirenetako partida oso deserosoa izan baitzen.

Arbizuarrak dominatu zuen eta partidaren erritmoa ezarri zuen: 5 eta 0 aurreratu zen, eta nahiz eta Agirre 5 eta 4 gerturatu, beste 5 tanto egin zituen segidan arbizuarrak eta 10 eta 4-ko aldea hartu zuen. Bi-paretei eta sakeei esker, 13 eta 8, 20 eta 11 eta 21 eta 13 aurreratzea lortu zuen Ezkurdia. Baina Agirreren erantzuna iritsi zen orduan; arriskatu zuen eta 21 eta 16 gerturatu zen, Arbizuko aurrelaria urdurituz. Deseroso aritu zen orduan Ezkurdia, sufritzen, baina azkeneko tantoa egitea lortu zuen, 18 pilotaka-

dako tantoa, final laurdenetarako sailkatu zuena.

### Gaur, ostiralean, Victorren kontra ariko da Ezkurdia

Lau t'erdiko A multzoan, Ezkurdia eta Victorrek (Retegi Biri 17 eta 22 irabazi zion) egin dute aurrera Lau t'erdian. Final laurdenetako ligaxkan, gaur, ostiralean jokatu dute biek, Legution (17:00, ETB1). Material aukeraketa asteazkenean egin zuten; elkarrenganako hitz politak izan zituzten, baina Ezkurdia du faboritoaren presioa. Olaizola II.a eta Altuna III.a, aldiz, astelehenean, urriaren 15ean aritzekoak dira Tolosan. Ikusteko dago oraindik Amezketakoa jokatzeko moduan egongo den. Gaur egingo du proba eta ondoren hartuko du erabakia.

Bestalde, Lau t'erdiko B multzoan Jaka (Arteaga II.ari 22 eta 11 irabazi zion) eta Elezkano II.a (Irribarria 11 tantotan utzi zuen) sailkatu ziren final erdietarako ligaxkarako. Bihar, la-

runbatean jokatzekoak ziren elkarren kontra, Arnedon, baina Jaka lesionatuta dago eta Retebi Bik hartuko du bere lekua. Hortaz, Elezkano II.ak Retegi Bi izango du aurkari. Bengoetxea VI.ak eta Urrutikoetxeak, aldiz, igandean jokatu dute Lekunberrin (ETB1).

Pilotariren batek ezin badu jokatu, txapelketatik kanpo geratuko da eta final zortzirenetan bidean geratu zen pilotariren batek hartuko du bere tokia, tanteoaren araberrako ordenan. Julen Retegi, Asier Agirre eta Axier Arteaga edo Iker Irribarria dira ordezkoak, hurrenez hurren. Esan bezala, Julen Retegik Jakkaren tokia hartu du.

## FINALERDIETAKO LIGAXKAKO LEHEN PARTIDAN EZKURDIAK VICTOR IZANGO DU AURKARI GAUR

# Iraolaren Basket Navarra lanean hasi da

**SASKIBALOIA** Zilarrezko Ligan dabil Basket Navarra eta igandean 3. jardunaldia jokatu du, Gijonen. Pello Iraola Rodriguez altsasuarra da taldekideetako bat. Bestalde, Garazi Misiego altsasuarra Ardoiko zuzendari-laguntzaile lanetan dabil

Aurreko ostiralean 2018/2019 denboraldiko Basket Navarra Club taldearen aurkezpena egin zuten. Xabi Jimenez entrenatzailearen eta Oihane Ciruelos entrenatzailearen esanetara 13 jokalaririk ariko dira eta helburua argia da: Urrezko mailara igotzea. Horretarako Zilarrezko ligan denboraldi bikaina egin beharko dute. Helburu hori gauzatzeko laguntzeko Dusan Sisic jokalaririk serbiarra fitxatu du taldeak (2.06 m), Suediako kategoria gorenean dabilen Nassjo Basket taldeetik datorren barne-jokalaria, primerako denboraldia egin eta gero.

13 jokalaririk horien artean altsasuar bat dugu, Pello Iraola Rodriguez (200-06-16). Altsasuko CBASK taldean trebatua, bertatik egin du salto Basket Navarra eta aurten debutatu du bertan. 1.92 m ditu eta eskolta postuan jokatzen du.

Aurten Arrosadian jokatu du partidak Basket Navarra



Pello Iraola, aurkezpenaren. BASKET NAVARRA

Club taldeak. Ligako 2. jardunaldi jokatu, lehenean Igualatorio Cantabria Estella taldeari 59 eta 73 irabazi zioten, baina asteazkenean jokatu du 2. jardunaldiko partida lehiatua, Basket Navarra 80 eta 83 hartu zuen

mendean Zornotza taldeak. 3. jardunaldia igandean jokatu dute Gijonen, Circulo Gijón taldearen kontra.

## Garazi Misiego Ardoiko entrenatzaile-laguntzailea

Asteazkenean Emakumezkoen Liga 2 mailan ariko den Ardoi Osos Construcción taldearen aurkezpena izan zen. Nafarroan emakumezkoen talde onena da Ardoi. 12 jokalaririk ditu eta Aitor Alonso da entrenatzailea, baina honek bere alboan Garazi Misiego altsasuarra du entrenatzaile-laguntzaile lanetan. Taldearen helburua mailari eustea da. "Ilusiotik, esfortzuztik eta sakrifizioz jaiotako proiektua da gurea, eta taldeak dena eman du" adierazi zuen Misiegok.

Ongi hasi dute denboraldia, Lima-Hortari 61 eta 65 irabazi zioten Bartzelonan, eta bihar, larunbatean, Zizurren (19:45) Inmobiliaria Victor Antuña dute aurkari.

## ELOMENDIKO TXAPELKA

2. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Roca - Zaldúa	1-4

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Bidezarra	6
3 Zaldúa	6

PARTIDUA	
ASTEBURUAN	
Zehaztu gabeko orduan Zaldúa - Unziti (Lekunberri)	

## Zalduak ekin dio Elomendiko Txapelketari

Hasi da Elomendiko Futbol Txapelketa. Bertan talde sakandar bakarra ariko da, Arakilgo Etxarrego Zaldúa. Ongi ekin dio denboraldiari Zalduak, asteburuan 1 eta 4 irabazi baitzuen Roca taldeari. Asteburuan Unziti izango du aurkari. Sailkapenean Bidezarra da liderra, Ardoi-Poukas bigarrena eta Zaldúa hirugarrena, hirurak seina punturekin.

## ATLETISMOA Onddo lasterketan izena ematea zabalik

Altsasuko ferietan, urriaren 27an jokatu da Dantzalekuk Sakana Atletismo Klubak antolatutako Onddo Lasterketa. 39. Eskola Krosako probak 11:00etan hasiko dira, oinezko martxa 11:30ean eta proba nagusia 12:00etan (6,5 km). Izena ematea zabalik dago [www.dantzalekuk-sakana.com](http://www.dantzalekuk-sakana.com) web gunean, urriaren 24ra arte (5 euro).

## Berdeak, Palma Futsalen kontra altxatzera behartuta

**FUTBOLA** Lau jardunaldi irabazi gabe daramatza Osasuna Magnak eta gaur Palma Futsal hartuko du

Burua altxatu ezin jarraitzen du Osasuna Magna Xotak, lau jardunalditan ez du partidarik irabazi.

Larunbatean Cartagenaren kontra aritu ziren Imanol Arregiren mutilak, eta nahiz eta Araçak eta Dani Saldisek Osasuna Magna aurreratu, Cartagenak bina berdintzea lortu zuen atsedaldia baino lehen, eta bigarren zatian iritsi zen talde berdearen hondamena: 9 eta 6 galduta itzuli ziren Murtziatik.

Imanol Arregi oso kritikoa azaldu zen. "Horrela jarraituz gero,

ez dago ezer egiterik. Gure estrategia gaizki defendatu dugu, kontzentrazio eta intentsitate gutxiarekin aritu gara, desastre hutsa. 9 gol sartzen badizkigute, horrela ezinezkoa da inori irabaztea" azaldu zuen.

Palma Futsal da Lehen Mailako liderra (12 puntu) eta Osasuna Magna 14.a da (puntu 1). Hain zuzen ere Palma Futsal liderra hartuko dute gaur berdeek Anaitasunan (20:30). Partida konplikatu izango da, baina ea zaleen babesarekin irurtzundarrak puntuatzen hasten diren.

## PREFERENTEIA

4. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Etxarri Aranatz - Berlain	3-1

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Arrotxapea	10
4 Etxarri Aranatz	8

PARTIDUA	
IGANDEAN	
16:30 Ilunberri - Etxarri (Lardin zelaia)	

## Herriko ferietako garaipena

Etxarri taldeko jokalariek herriko feriak gustura ospatu zituzten, Berlain taldeari 3 eta 1 irabazi eta gero. Mikelek aurreratu zuen Etxarri, Berlainek berdintzea lortu zuen, baina Arratibelen eta Agirrerren golei esker puntuak etxean geratu ziren.

## ERREGIONALA

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Lagun Artea	1-1

SAILKAPENA	
ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Lagunak B	13
2 Lagun Artea	12
4 Altsasu	10

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
16:30 Lagun Artea - Salesianos (Zelai Berri)	
16:00 Liceo Monjardin - Altsasu (S. Jorge)	

## Puntu banaketako derbia

Igandean Altsasu eta Lakuntzako Lagun Artearen nor baino nor aritu ziren Dantzalekun. Partida oso lehiatua, Javi Guisadok Altsasu aurreratu zuen 17. minutuan eta berdinketa lortzeko gogor borrokatu ziren Lagun Arteko mutilak. Lakuntzarrak ez ziren eroso aritu, baina 89. minutuan Yonathan Davilak berdintzea lortu zuen eta puntu banaketarekin despeditu zen derbia.

## EMAKUM. ERREGIONALA

4. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Izarra - Altsasu	1-1

SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Osasuna	15
9 Altsasu	7

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
16:30 Altsasu - Universidad de Navarra (Dantzalekun)	

## OPUSEKO Unibertsitatekoen kontra

Emakumezkoen erregional mailan, Altsasuko neskek bana berdindu zuten Izzararekin. Bihar 3 punturekin sailkapenean 11.a den Universidad de Navarra taldea hartuko dute etxean.



## Elkarteen arteko Txantreara

**FUTBOLA** Larunbatean Elkarteen Arteko Botxa Txapelketa jokatu zen Irurtzongo Iratxon. 5 elkarreetako 8 bikote lehiatu ziren guztira. 3. eta 4. postuetako finalean Angelek eta Txibok (Berriozar) 15 eta 3 irabazi zieten Txeliri eta Tereri (Irurtzun), eta final handian David eta Valen Herrera izan ziren txapeldunak (Txantrea), Mikel eta Migeli (Irurtzun) 15 eta 5 irabazita.





Autoez gain, motor, bizikleta, nekazal tresna, kamioi, traktore eta mota guztietako katxarroak ikusteko aukera izanen da bihar.

## Katxarroak hartu eta Bakaikura

**AUTOMOBILISMOA** Bihar, larunbatean, goizeko 10:00etatik aurrera mota guztietako ibilgailuak, auto klasikoak, bizikletak, motorrak eta beste ikusteko aukera izango da Bakaikun. 12:00etan irteera egingo dute eta, ondoren, bazkari herrikoa

Bakaikuko Bakarrekotexea elkarrekin antolatuta, IV. Katxarro Eguna ospatuko da Bakaikun. Bihar izanen da, urriaren 13an, larunbatarekin, goizeko 10:00etatik aurrera. Goizeko 9:00etik aurrera hasiko dira auto klasikoak, garai bateko bizikletak, motorrak, traktoreak, kamioiak eta mota guztietako tramankuluak iristen. Txukun-txukun Bakaikuko plazan eta inguruetan aparkatu eta garai bateko traste edo katxarro zahar horiek gertutik ikusteko aukera izango dute bertara gerturatzen direnek. Ibilgailu klasikoan munduak izugarri erakartzen du. Nork ez ditu gogoratzen garai bateko Seat 600ak, Miniak, Alpineak eta beste? Oroitzapenak freskatzeko edo aspaldikoa ezagutzeko aukera dago Bakaikun.

Aurreko urtean, jende asko hurbildu zen eta oso animatuta egon zen eguna. 70 auto baino gehiago, 30 bizikleta baino gehiago, 25 moto inguru, Urbitarteren kamioia, traktore zahar batzuk

eta Ignacio Arbizuren gari sortak egiteko makina, "agavillador" delakoa, trilladoraren zati bat, ikusi ahal izan ziren gertutik. Horretaz gain, Razesak Indurainek 1990 edo 1991eko Tourrean aritu zen "cabra" ekarri zuen.

### Beti dago nobedaderen bat

Aurten 70 parte-hartzaile inguruk eman dute izena momentuz. "Aurreko urtean auto bat ekarri zuen batek esan digu aurten karabana bat ekarriko duela, lehendabizikoetako bat. Eta Ignacio Arbizuk ere ekarriko du bitxikeriaren bat, garai bateko enpaketadora edo halakoren bat. Urtero harribitxi ezberdinak ikusteko aukera dago" adierazi dute antolatzaileek.

### KATXARRO EGUNEAN URTERO BITXIKERIAREN BAT IKUSTEKO AUKERA IZATEN DA

Antolakuntzak hamaiketako ederra prestatuko die topaketa euren katxarroak eramango dituzten guztiei. Eguerdia pasata, euren ibilgailu klasikoetan igo eta Sakanan barna buelta txiki bat egingo dute, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, San Pedro, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku artean (15 km). Eta festa boro-biltzeko bazkaria izanen da elkartean. Antolakuntzak Katxarro Zaharrena eta Katxarro gehien ekarri dituen kluba sarituko ditu.

### Velosolex motor baten zozketa

Bestalde, Velosolex motor bat zozketatuko dute Katxarro Egunean, 12:00etan. "Eibarren egiten ziren motor hauek. Motorra aurreko gorpolean dute, eta horregatik ez da karnet berezirik behar gidatzeko. Aurreko batean ere zozketatu genuen halako bat eta arrakasta handia izan zuenez, beste hau bilatu dugu. Txartelak salgai daude, 2 eurotan" adierazi digute.

## Euskal Herriko erdigunera martxa, igandean

**MENDIA** Hiru zutabe aterako dira, tartean Unanutik (8:15) eta Irañetatik (9:30). Ekitaldia 11:30ean izanen da

Urriaren 12an "Hispanitatearen eguna" ospatzen da Espainiar estatuan. Gurean, euskal lurraldetasuna aldarrikatzeko helburuarekin Berriain ondoan dagoen Euskal Herriko Erdigunera ibilaldia antolatzen da azken urteetan. Aurten ere deialdiari eutsi diote Independentistak Sareak, Iratxo mendi taldeak eta Sakanako Mendizaleak taldeek eta iganderako antolatu dute lurraldetasunaren eguna izan nahi duen mendi martxa, urriaren 14an. Irañetako Udaren eta Nafarroako Mendi Federazioaren laguntza izan dute.

### Hiru zutabe aterako dira, EH Erdigunea helburu

Hiru zutabe aterako dira Euskal Herriko Erdigunerantz. Berriain tontorretik hurbil dago, Olibesarioko sarioan (1.232 m. Koor-

denadak: X:586.936 eta Y:4.748). Felix Isasi ingeniariak barizentzaren kontzeptuan oinarrituta kalkulatu zuen Euskal Herriko Edigunea eta monolito bat dago bertan.

### Pintxo potea eta bazkaria Irañetako bordan

Lehen zutabea Unanuko herriko plazatik abiatuko da, 8:15ean, bigarren zutabea Senosiango goialdeko askatik, 8:45ean, eta, azkena, Irañetako bordatik, 9:30ean. Behin Erdigunean bilduta, ekitaldia eginen da bertan, 11:30ean. Ondoren, Irañetako bordara jaitsiko dira bildutakoak, 13:30ean pintxo potea izanen baita. Bazkari herrikoa ere bertan eginen dute, 15:00etan (helduek 10 euro eta haurrek 5). Informaziorako, [www.independentistak.eus](http://www.independentistak.eus) web gunera edo 943 561 853 telefonora jo daiteke.

**EUSKAL HERRIKO ERDIGUNERA MARTXA**  
URRIAK 14

Zutabeak  
08:15 Unanu (Herriko plaza)  
08:45 Senosiain (Goiko partean dagoen askari)  
09:30 Irañeta (Bordatik)

11:30 EKITALDIA  
13:30 Pintxo-potea Irañetako bordan  
15:00 BAZKARI HERRIKOIA Irañetako bordan

Helduak 12€ haurrek 6€  
Izema emateko: [www.independentistak.eus](http://www.independentistak.eus) edo 943 561 853  
Azken eguna urtik 10

ANTOLATZAILEAK  
INDEPENDENTISTAK  
KONTZERTALAN





Bukaeran sari ematea izan zen ferietan murgildua zegoen Etxarri Aranazko plazan.

# Katarain eta Sanz nagusi Mendira Joan Etorrian

**MENDI LASTERKETAK** 91 korrikalarik osatu zuten 43. Mendira Joan Etorria, horietatik 48 sakandarrek, etxarriarrak gehienak (32). Aritz Munarriz –helmugan laugarrena– eta Ioana Lopez –emakumezkoetan bigarrena– izan ziren lehen etxarriarrak

Hotza eta tarteka euria ari zuela jokatu zen, igandean, Udaberri elkarteak Etxarri Aranazko Udalaren eta Nafarroako Mendi Federazioaren laguntzarekin antolatutako 43. Mendira Joan Etorria. Feriak zirenez, irteera hartu zuten 92 korrikalariak animatzeko giro oso polita zegoen plazan. Etxarrikoa denboraldiko azken lasterketetako bat denez, ongi aritu nahi zuten korrikalariak, proba Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria zela kontuan hartuta, are gehiago.

## Jaitsieran hartu zuen aurea Katarainek

Urbasa-Andiako bargaraino, Hartzabaleraingo, igotzea zen erronka, handik Etxarriko plazaraino jaisteko (10 km eta 572 m desnibel +). Hasieratik aurrean jarri ziren Alkotzeko Mikel Beunza, Lakuntzako Beñat Katarain eta Hiriberri Deierriko Javier Lizarraga. Hartzabal igo baino lehen ihesi egin zuen Beunzak eta bera izan zen Hartzabalera iristen lehena, atzetik zituenei 20 segundo aterata. Baina jaitsieran Beñat Katarainek Beunza harrapatu eta gainditu zuen, eta bakarrik iritsi zen Etxarriko helmugara (45:30), Mikel Beunzari ia minutu bat aterata (46:25).

Hirugarrena Javier Lizarraga sartu zen (46:47), eta laugarrena Aritz Munarriz etxarriarra (48:33), herritarren txalo zaparrada artean. Lehen beterranoa Ander Unzurrunzaga Iurrebaso etxarriarra izan zen, helmugan zazpigarrena (50:54). Emakumezkoetan, 2017an bigarrena izan zen Galarko Getzeko Izaskun

Sanz izan zen azkarrena (59:41), eta aldi berean probako lehen beterranoa izan zen. 2 minutu pasa atera zizkion Ioana Lopez Berastegi etxarriarrari (1:01:45), eta hirugarrena Erkuden San Martin etxarriarra izan zen (1:03:13).

“Etxarrikoa gogorra egiten da denboraldi bukaera delako, bai-

na oso polita da” adierazi zuen Beñat Katarainek. “Oso lasterketa polita da, sekulako giro ederrarekin” gaineratu zuen Izaskun Sanzek.

## 48 sakandar, horietatik 32 etxarriar

Aipatzekoa da Etxarriko proban aritu ziren korrikalari gehienak sakandarrak zirela. Proba osatu zuten 91 korrikalarietatik 48 sakandarrak ziren, eta haietatik gehienak etxarriarrak, 32 herritar. Bukaeran auzate ederra zuten zain Udaberri elkarteak. Aldiz, sari ematea Etxarri Aranazko plazan egin zuten. Lehendabiziko gizon eta emakumeek 100 euro, txapela eta sari berezia jaso zituzten, bigarrenek 75 euro eta sari berezia eta hirugarrenek 50 euro eta sari berezia. Bestalde, lehendabiziko gizon eta emakumezko etxarriarrek 50 euro eta sari berezia jaso zituzten, eta bigarrenek eta hirugarrenek sari berezia. Lehen beterrano-dako ere sari berezia egon zen.

Katarainek eta Sanzek ez zituzten Juan Mari Garinen 2001eko (42:50) eta Virginia Perezen 2016ko (52:18) errekorrak gainditu.

## 32 ETXARRIAR ARITU ZIREN HERRIKO PROBAN ETA MUNARRIZ ETA LOPEZ IZAN ZIREN FINENAK

## Sakandarrak

Korrikalari sakandarren sailkapena:

Gizonak	
1. Beñat Katarain (Lak)	45:30
4. Aritz Munarriz (Etx)	48:33
7. Ander Unzurrunzaga Iurrebaso (Etx)	50:54
9. Mikel Satrustegi (Arru)	51:34
10. Joxeja Maiza (Etx)	51:48
11. Alatz Agirre (Arb)	52:22
12. Alberto Razkin (Etx)	52:36
14. Beñat Anda (Etx)	52:56
17. Ander Unzurrunzaga Ganboa (Etx)	53:44
19. Jorge Holgado (Alts)	54:11
22. David Caballe (Etx)	54:42
23. Ibon Ubeda (Etx)	55:18
24. Fran Araña (Arb)	55:26
25. Santi Galarza (Itur)	55:29
28. Ioseba Iza (Arb)	56:03
30. Egoitz Aldaz (Olaz)	56:25
31. Gaizka D. De Garaio (Bak)	56:36
33. Arkaitz Munarriz (Etx)	56:53
34. Carlos Mañeru (Etx)	56:55
35. Iban Gonzalez (Urd)	56:57
36. Kepa Gordo (Arb)	57:04
37. Joseba Galarza (Iturm)	57:10
42. Iban Verdugo (Etx)	58:41
45. Ivan L. Sabando (Etx)	59:09
46. Izai Mauleon (Etx)	59:10
50. Josean Salgado (Alts)	59:34
52. Bernardo Garciandia (Etx)	59:48
53. Alberto Mtnez. de Lagran (Etx)	59:54
54. Gorka Arratibel (Etx)	59:58
55. Xabier Etxeberria (Etx)	1:00:19
57. Asier Estarriaga (Etx)	1:00:28
58. Aimar Araña (Etx)	1:00:30
59. Garat Flores (Etx)	1:00:36
60. Patxi Urrestarazu (Etx)	1:00:59
61. Bautista Barandalla (Etx)	1:01:30
62. Jon Zabaleta (Etx)	1:01:30
63. Arantz Jaka (Etx)	1:01:37
69. Jon Igoa (Etx)	1:04:46
70. Iñaki Arkauz (Lak)	1:04:53
76. Luismi Chaves (Lak)	1:07:43
82. Aitor Salinas (Etx)	1:11:03
86. Patxi Atxa (Etx)	1:12:30
Emakumeak	
51. Izaskun Sanz (Galarko Getze)	59:41
64. Ioana Lopez (Etx)	1:01:45
66. Erkuden S. Martin (Etx)	1:03:13
72. Maite Zabaleta (Etx)	1:05:46
81. Joana Senar (Etx)	1:11:02
84. Olga Garziandia (Etx)	1:11:53
85. Izaskun Igoa (Etx)	1:11:59

## Beñat Katarain: Etxarritik Italiara

Aparteko denboraldia egin du Zegaman bizi den lakuntzarrak: Camille Extreme, Lakuntza-Aralar, Garin, Orio, Aztiri eta igandeko Etxarri Aranazko mendi lasterketak irabazi ditu, eta 2. eta 3. sariak jasotzera sarritan igo da podiumera. Horrela, Katarain Euskal Herriko Mendi Federazioko Rankingeko txapelduna da, Nafarroako Lerroko Mendi Lasterketen Txapelketan lehena da, eta Euskal Herriko Mendi Lasterketen selekzio kide hautatu dute.

Larunbatean Italiako Limone Extreme Skyrace ikusgarrian (29 km eta 2.540 metroko desnibel +) arituko da Beñat, EHko mendi selekzio bere taldekideekin batera, ISFko Skyrunning Mundu



Beñat Katarain igandean Etxarriko Joan Etorrian, barga gainean.

Kopak baliagarria. Korrikalaririk onenak lehiatuko dira: Kilian Jornet, Remi Bonet, Marco Degasperi, Sheila Avilés, Oihana Azkorbeitia, Ander Iñarra... Aurreko urtean 474ren artean

Degasperi izan zen txapelduna (3:07:32) eta Katarain 30.a sailkatu zen (3:38:28). “Aurreko urtekoa errepikatzea ez da txarra; mendi korrikalarien crème de la crème aritzen da bertan” dio.





Etxarri Aranatz futbol klubeko preferente mailako 2018/2019 denboraldiko taldea. ETXARRI FUTBOL TALDEA

# Etxarri: preferenteari eustea, lasaitasunez

**FUTBOLA** Preferente mailan geratzen den talde sakandar bakarra da Etxarri Aranatz. Helburua mailari eustea da, aurreko denboraldiko estutasunik pasa gabe. Denboraldia ongi hasi du taldeak eta horri eutsi nahi dio

Etxarri Aranatz da Nafarroako Futbol Federazioko preferente mailako talde sakandar bakarra, aurreko denboraldian Lakuntzako Lagun Arteak maila galdu eta erregionalera jaitsi eta gero. Etxarrik gutxiagatik heldu zion mailari. "Preferentea da gure maila, izatez. Aurreko urtean dena aldrebes atera zitzaigun, zorterik gabe ibili ginen eta justu-justu lortu genuen kategorian geratzea. Aurten preferente mailari eustea da gure helburua, baina aurreko urteko estutasunik pasa gabe. Mantentzea, baina ahal bada lasaiago" adierazi digu Etxarriko preferente mailako entrenatzaile Iosu Murgiondo Mundiñanok.

Eta ondo hasi dituzte gauzak. 4 jardunaldi jokatu dituzte eta horietatik bi partida irabazi eta beste bi berdindu dituzte. Arrotxapea da liderra (10 puntu) eta Etxarri Aranatz laugarrena da (8 puntu). "Bi zelai garrantzitsuetan puntuatu dugu eta ongi hasi gara. Aurreko urtean, aldiz,

ia ez zen ezer sartzen eta aurten bai. Talde polita dugu, eta nabaritzen da jende gazte askok mailan urte bat baino gehiago duela, esperientzia hartzen ari dela" dio entrenatzaileak.

## Talde batua, giro onekoa

Aurreko urtetik bost baja izan ditu taldeak. Xabi Bakaikoa Lagun Arteara joan da, Mikel Martiarena Aralar Mendi areto futbol taldera eta Iñaki Gonzalok, Iñaki Razkinek eta Garat Floresek futbola utzi dute. Haien hutsunea betetzeko 6 jokalar berri ditu aurten Etxarri Aranatzek. Batetik, Aimar Ijurra, Mikel Agirre eta Jon Fran Huizi Etxarriko jubenilen taldetik igo dira; bestetik, Alain Alberdi oraindik jubenil mailako taldekoa da, baina preferente mailan ariko da ere, beharren arabera; eta Eneko Larraza eta Ibai Senar bakaikuarrak, hainbat urte futbola utzita egon eta gero, berriz ere taldera itzuli dira. Gainontzekoak aurreko urtekoak dira.

"Gehienak hemengo jokalariek dira, etxarriarrak eta gertuko herrietakoak. Eskaini izan dizkigute Iruñeko jokalariek, baina hori ez da gure helburua, guk bertako jendeak jokatu dezan nahi dugu. Harrobia badugu, baina talde txikiak gara eta urte batzuetan atzetik jokalar berriak sartzen dira eta beste batzuetan ez horrenbeste. Sekulako giro ona dago taldean, aurreko denboraldian bezala. Iaz ez zitzaizkigun gauzak oso ongi joan, baina ez zen talde barruko giro faltagatik, inolaz ere. Abenduan dagoeneko gaizki geunden, salbaziotik 7 puntura eta 18-19 mutiko etortzen ziren entrenatzaera arezko zelaira, kezarik gabe, denak txintxo-txintxo, eta

**"TALDE BATUA DA GUREA ETA HORI ABERASTASUN HANDIA DA, HORI DA GURE INDARGUNEA"**

## Etxarri 18/19

**Atezaina:** Ivan Gorritz

**Defentsak:** Luis Goñi, Alain Perkaz, Unai Artieda, Andoni Agirre, Oihan Karasatorre, Mikel Arratibel eta Mikel Agirre

**Erdilariak:** Gentza Erdozia, Asier Arratibel, Alain Iriarte, Aitor Saez, Iñigo Arratibel, Ivan Cerezo, Javi Fernandez, Darling Quezada, Aimar Ijurra, Eneko Larraza eta Ibai Senar

**Aurrelariak:** Xabat Goikoetxea, Jon Fran Huizi eta Alain Alberdi

**Entrenatzailea:** Iosu Murgiondo

partida ondoren merendatzera gindoazen, partida ondoren buelta ematera... giro bikaina zegoen, aurten bezala. Talde batua da gurea eta hori aberastasun handia da, hori da gure indargunea" nabarmendu du Murgiondok.

## Kadeteen talderik gabe

Preferente taldeaz gain, aurten jubenilen, infantilen, kimuen 2 talde eta benjaminen 2 talde izango ditu Etxarrik. Pena handiz, ez da kadeteen mailako talderik sortu. "Horrek ematen dit pena handiena, kadete mailako 8-9 haur jokatu gabe geratzea jende gehiagorik ez dagoelako. Betiko arazoa da hori, talde txikietan gertatzen zaiguna: tarteka talderik ez sortzea. Boladaka doa hau, denboraldi batean ez duzu kadete edo infantilen mailako talderik eta hurrengoan bai. 20.000 biztanleko bailaran hiru futbol talde egonda tarteka gauza hauek gertatzea normala da. Altsasuk ez du arazo hau, baina klub txikiagoek, Etxarrik eta Lagun Arteak, tarteka jendez justu ibiltzea, bai. Kirol eskaintza geroz eta handiagoa da eta ez dago jenderik denetarako" dio entrenatzaileak.

Benjaminetatik jubenil mailaraino, jokalar guztiek joka dezatela, hori bulkatzen dute. "Irabazten badute ongi eta galten badute ere bai. Parte har dezatela, jolas dezatela, futbolarekin ongi pasa dezatela".

Etxarri Futbol Taldeko juntan ez da aparteko aldatetarik. Eduardo Elso da lehendakaria, Iñaki Elvira lehendakariordea eta diruzaina, Iña Arratibel idazkaria eta Jose Javier Urkia, Jose Guillorme, Fran Gomez, Xabier Errazkin eta Koldo Murgiondo bokalok.



Jon Gil helmugara iristen. MARTIN EARLY

## TXIRRINDULARITZA Jon Gil bigarrena Atarrabiako Udaleko Trofeoan

Igandean kadeteen eta jubenilen Nafarroako azken proba jokatu zen, XLIII. Atarrabiako Udaleko Trofeoa. Euria eta hotza izan ziren protagonista lasterketa gorabeheratsuan. Proba 11 txirrindularien arteko esprintean erabaki zen eta Fundacion Lintxu taldeko Santiago Cadavid izan zen azkarrena, Tafalles klubeko El Caserio-Valsay taldeko Jon Gil lakuntzarraren aurretik. Proban bigarrena, baina Jon Gil lehen urteko juniorren sailkapenean lehena sailkatu zen. Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Beñat Etxezarreta laugarrena sailkatu zen, eta talde bereko Javier Mitxaus 11.a. Gainontzekoei dago kienez, Iker Cerviño (I.I.) 15.a sailkatu zen, Mikel Lizasoain (I.I.) 26.a eta Diego Gonzalo (Que-sos Albeniz) 27.a.

Lasterketa honekin kadeteen eta jubenilen mailako txirrindulariek agur esan diote 2018 denboraldiari. Merezitako atsedena hartu eta hurrengo prestatzen hasiko dira aurki.

**KLASIKOEN TOPAKETA**  
**IV. KATXARRO EGUNA**  
**URRIAK 13 - BAKAIKU**

10:00 - 13:00 KLASIKOEN TOPAKETA  
11:30 - PARTE HARTZAILEENTZAT LUNTXA  
12:00 - SAKANATIK IBILBIDEA  
14:30 - BAZKARIA ELKARTEAN

PREZIOA: 15 EURO / HAURRAK: 10 EURO  
BIZKARRIAK PARTE HARTZEKOA ETA TROFEOA PARTE HARTZEKOA

**tzena eman!** KATXARROEGUNA@GMAIL.COM  
691557448 - 680 825 557 KATXARRO EGUNA



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 12

**ALTSASU Herri eskola:**  
**Palestina: borroka eta erresistentzia 70 urte.** Hizlaria: Mikel Bueno.  
11:00etan, Gaztebtxean.

**ARBIZU 'Europari so' hitzaldi**  
**tertulia.** Hizlaria: Ander Larunbe.  
12:00etatik 13:00era, plazan.

**ALTSASU Billar txapelketa.**  
**Gazteria zerbitzuak antolatuta.**  
18:00etan, Intxostiapuntan.

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia**  
**toki egokian.** Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.  
19:00etan, Kale Nagusiko 7.an.

**ALTSASU Euskaraldia**  
**prestatzeko bilera.**  
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
**Euskal presoak Euskal Herrira**  
**kontzentrazioak.**  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske**  
**kontzentrazioa.**  
20:00etan, udaletxe parean.

**IRURTZUN Antzerki zikloa:**  
**Sutottos konpainiaren**  
**Inestable.**  
21:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Cuando ellas quieren**  
**filmaren emanaldia.**  
22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 13

**ALTSASU Altsasu-Javier 120**  
**km-ko ibilbidea** eginen dute  
**Barranka Txirindulari Taldeko**  
**errepide atalekoak.**  
08:00ean, taldearen egoitzatik.

**BAKAIKU IV. Katxarro eguna.**  
10:00etatik aurrera, plazan. Ikus  
17. orrian.

**ETXARRI ARANATZ Axioren**  
**eraiketaren urtemuga. AEM.**  
12:00etan, plazan.

**ETXARRI ARANATZ Euskaraldian**  
**izena emateko aukera.**  
12:00etatik 14:00etara, plazan.

**ARBIZU Txistor eguna.**  
**Haurrendako puzgarriak eta**  
**musika emanaldia.**  
16:30etik aurrera, plazan. Ikus 11.,  
12. eta 13. orrian.

**ALTSASU Pitzapelketa.** Gazteria  
zerbitzuak antolatuta.  
18:00etan, Intxostiapuntan.

## IGANDEA 14

**ALTSASU Egunean zehaztuko**  
**dute ibilbidea** eginen dute  
**Barrankako mendi atalekoak.**  
07:30ean, San Juan plazatik.

**UNANU ETA IRAÑETA Euskal**  
**Herriko erdigunera martxa.**  
**Sakanatik bi zutabe aterako dira:**  
08:15ean, Unanutik; 09:30ean,  
Irañetatik. Ikus 17. orrian.

**ETXARRI ARANATZ Ziza eta**  
**landareen erakusketa.** Bixente  
Garziandia "Berze"-ri eta Jose  
Luis Eseveniri omenaldia.  
**Aranzabal elkarteak antolatuta.**  
10:00etatik aurrera, plazan.

**BAKAIKU Gaztaina mozte eguna.**  
**Ibilbide gidatua.**  
10:00etan, Mandubiatik.

**ALTSASU Ping-pong txapelketa.**  
**Gazteria zerbitzuak antolatuta.**  
18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU Cuando ellas quieren**

**filmaren emanaldia.**  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal**  
**Herrira kontzentrazioa.**  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 15

**ALTSASU Osasunez zahartzea**  
**Adinduen eskolako tailerra.**  
**Izena emateko: 848423450.**  
17:00etatik 19:00etara,  
Erretiradunen elkartearen.

**ALTSASU Pentsio duinen alde.**  
**Nafarroako Pentsionistak**  
**Martxan eta Otsailaren**  
**22ko Plataformak deitutako**  
**elkarretaratzea.**  
19:30ean, Zumalakarregi plaza.

## ASTEAZKENA 17

**ZIORDIA Udazkena KM-0**  
**sukaldatze tailerra:**  
**menu dotorea Sakanako**  
**txekorrarekin. Ismael**  
**Alegria sukaldariarekin**  
**eta Ana Carmen Huarte**  
**dietista nutrizionistarekin.**  
**Izena emateko: nviana@**  
**sakanagaratzen.com edo**  
**672688591.**  
19:00etan, Errekak Artean elkartearen.

## OSTEGUNA 18

**ETXARRI ARANATZ Adinduen**  
**eskola: ¿A donde vamos?**  
**filmaren emanaldia eta**  
**eztabaida gazteendako,**  
**helduendako eta**  
**adinekoendako.**  
17:00etik 20:00etara, kultur etxean.

**ALTSASU Alpha filmaren**  
**emanaldia.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## ZORION AGURRAK



**June Etxegoien**  
**Zelaia**  
Zorionak Bihotza!  
Dagoeneko 6 urte!  
Zure aitona eta  
amonaren partez



**ALTSASU Yolanda Arnedoren**  
**Arte Dekoratioben tailerraren**  
**ikasleen lanen erakusketa.**  
**Urriaren 14ra arte. Astelehenetatik**  
**ostiraletara 18:30etik 21:00etara,**  
**larunbatetan 18:30etik aurrera eta**  
**igandetan 16:00etatik 20:30era.**

**ARBIZU Txistor Egunean**  
**ibilbidearen argazki**  
**erakusketa. Udaletxeko batzar**  
**gelan.**  
**Larunbatean 19:00etatik 20:30era**  
**eta igandean 11:00etatik**  
**15:00etara.**



## IRAGARKI SAILKATUAK

**LEHIAKETAK**  
**GAZTEWOOD.** Altsasuko  
gaztebtxearen III. Film laburren  
txapelketa. Gehienez 15 minu-  
tu. Lanak MP4 formatuan, DVDan  
edo pendrivean aurkeztu behar  
dira 2019ko martxoaren 19a  
baino lehen. Informazio gehia-  
gorako gazteewood@gmail.com  
edo sare sozialetan gazteewood  
profilean.

**OHARRAK**  
**Olaztiko irakurle taldea:** Hu-  
rrengo hitzordua lastailaren  
19an, ostiralean, 21:00etan udal  
liburutegian. John Herseyren  
Hiroshima liburua izanen da  
hizketa gaia.

**Telebista saio baterako parte-**  
**hartzailerak:** Iruñerriari emiti-  
tzen den Xaloe Tebistak Euskal  
City saioa grabatzen hasi zen  
Berriozarko egoitzan, maiatzean.  
Euskal jendeari zuzendutako  
saioa da eta edozein adinetako  
jendeari bila ari dira, hizkun-  
tzaren ikasketa prozesuarekin  
zerikusia duten esperientziak  
elkarbanatuz (nola hasi ziren

ikasten, zergatik, etab... ). "Min-  
tzapraktika bat da, baina, graba-  
tuta. Ongi pasatzeko espe-  
rientzia bat, euskararen alde  
egiten den bitartean". Xaloe  
telebistatik diotenez, "zuen el-  
karte, herria, enpresa... promo-  
zionatzeko edota ikustaratzeko,  
aukera bikaina da". Harreman-  
tarako: xaloeproduktzioa@gmail.  
com edo 948 592 476 telefonoa  
(Izaskun Artigas)

**Sakana Trenaren alde.** Taldea  
astelehenero, 19:00etan, elkar-  
tzen da. Behin behineko bitokia  
LABek Altsasun duen egoitzan  
da, han egiten dira bilerak.

**GoEner.** Iruñeko helbide berria:  
Kale Berria 111, 31001 Iruñea,  
tel. 948 504 135. Hilero 1. eta  
3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

**Gazteei jarritako isunak**  
**ordaintzeak.** Euskal preso eta  
iheslarien aldeko abenduaren  
30eko ekimenean parte hartu  
zuten gazte sakandarrek 6000  
euroko isuna jaso dute. Mozal  
legearen aplikazio horri elkarta-  
suneetik erantzun kolektiboa  
emateko dinamika martxan jarri

dute gazteek. Diru ekarpenak  
egiteko kontu korrontea zabaldu  
dute. ES67 3008 0014 2133  
8075 1119

**OPATUTAKOAK/  
GALDUTAKOAK**

**GALDUTAKOAK**  
**Belarri audifonoa Altsasun:**  
Josefina Arregi klinikaren aurre-  
tik pasatzen den Zelai kalean  
belarri audifono bat aurkitu zuten  
astelehenero. Klinikari gorde  
dute, bertatik pasatu.

**OPATUTAKOAK**  
**Altsasuko Udaltzaingoa**  
**Altsasun galdutako gauza**  
**hauek ditu:** diru-zorroak, pol-  
tsak eta nezeserrak: 31. Audifo-  
noa: 1. Betaurrekoak eta betau-  
rreko-zorroak: 42. Eurritakoak  
eta makilak: 19. Belarritakoak,  
kateak, eskumuturrekoak, eraz-  
tunak, erlojuak eta imitaziozko  
bitxiak: 31. Arropak eta oineta-  
koak: 48. Bizikletak eta patinak:  
10. Beste objektu batzuk: 8.  
Etxeko giltzak eta ibilgailuak.  
www.iragarkilaburak.eus





ESKELA



**Amparo Bengoetxea Fernandez de Garaialde y Lazkano**

"Negar egin dezakezu, zure burua itxi, hutsunea sentitu eta bizkarra eman, edo berari gustatzen zitzaiena egin: irri egin, begiak ireki, maitatu eta jarraitu"

Beti izango zara gure bihotzetan

**Etxekoak**  
Altsasun, 2018ko Urriaren 6ean

ESKELA



**Amparo Bengoetxea Fernandez de Garaialde y Lazkano**

"Beti gogoratuko zaitut"

**Mari Barandiaran**

ESKELA



**Amparo Bengoetxea Fernandez de Garaialde y Lazkano**

Izan zarenagatik eta maite izan gaituzunagatik lehengusuok ez zaitugu inoiz ahaztuko

**Bengoetxeatar lehengusuak**  
Altsasun, 2018ko Urriaren 6ean

ESKELA



**Juan Mari Goikoetxea San Roman**

Ez daukagu hitzik zuek kontsolatzeko, baina jakizue gure adiskidetasuna duzuela

**Alagurie**  
Etxarri Arantzen, 2018ko Urriaren 4ean

**JAIOTZAK**

- **Itsasne Carabias Azpiroz**, irailaren 30ean Altsasun
- **Amin Najmi**, urriaren 6an Lakuntzan

---

**EZKONTZAK**

- **Ion Larraza Aristorena eta Oihana Gastamintza Jaka**, urriaren 6an Lizarragan



---

**HERIOTZAK**

- **Venancia Mozo Marin** unanuarra, urriaren 6an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA

**Benigno Mendia Goikoetxea**

III. urteurrena  
Urriaren 10ean

Zure familia eta lagunak



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI-ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

EGURALDIA ASTEBURUAN

<b>Ostirala, 5</b> Min. 13° Max. 25°	<b>Larunbata, 6</b> Min. 15° Max. 25°	<b>Igandea, 7</b> Min. 8° Max. 19°	<b>Astelehena, 8</b> Min. 8° Max. 17°
--	---	--	---

**tanatorioak**  
**IRACHE**  
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

**“Betidanik”**

☎ 948 19 70 70  
 🐦 @Grupolrache  
 📘 Grupolrache  
 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Sutottos konpainiaren *Inestables* ikuskizunaren une bat. UTZITAKOA

## Drama, komedia eta musika Irurtzango Antzerki Zikloan

Sutottos Argentinako konpainiaren *Inestables* ikuskizunak zabalduko du Irurtzango Antzerki zikloa

### IRURTZUN

Iritsi da Irurtzunean antzerkiarekin duen zita. Urtero bezala Antzerki Zikloa antolatu dute urriko ostiraletarako. 21:00etan izanen dira emanaldiak. Hiru antzezlan izanen dira herriko kultur etxean antzerkiaren genero nagusiak landuko dituztenak. Gainera, haietako bat euskaraz izanen da. Argentinatik dator lehenengo ikuskizuna. Gaur izanen da lehenengo emanaldia: Sutottos konpainiaren *Inestable* antzezlan; 21:00etan, kultur etxean.

Gaizki itxitako atea edo horman hezetasunaren ondorioz sortutako orbanak dira abiapuntua. Edozein gauzak sortu dezake Leon eta Cesar pertsonaien paranoia. Beldurra oinarri hartzen du *Inestables* lanak. Beldurra haren aldagai guztietan: paranoia, fobiak, antsietatea, obsesioak... Antzezlanak gogo-aldar-

te segida bat da erreala eta irreal zer den planteatzera eramaten duena.

Leon eta Cesar pertsona normalak dira, baina fobia asko dituzte eta ezin dituzte izkutatu. Haiak gaizki pasatzen dute eta, ondorioz, ikus-entzuleak farrez lehertzen dira. Komedia dramatiko da Sutottos konpainia argentinarrak aurkezten duena. Umorea, clown-a eta xumetasuna dira konpainia honen zigilua.

### Antzerki zikloa

Irurtzango Antzerki Zikloak hurrengo ostiralean izanen du segida, urriaren 19an. Komedia izanen da nagusi: Tdiferencia konpainiaren *Salir de cuentas a los cincuenta* antzezlanaren emanaldia izanen da. Zikloa urriaren 26an amaituko da *Ez dok hiru 'Akustikoa'* ikuskizunaren emanaldiarekin. Musika eta antzerkia uztartzen ditu.

## Matrikulazioa zabalik dago Sakanako Bertso Eskoletan

Gazteendako eta haurrendako bertso eskolak martxan jarri dira Sakanako hainbat herritan. Bertsozalaritzarekin eta hitzekin gozatzeko aukera ez ezik, gaitasun ugari trebatzen dira bertsozalaritzarekin: bat batekotasuna, iruditegia eta argudioak lantzea, lagunak ezagutzeko eta euskaraz bizi eta harekin jolasteko aukera ematen du, besteak beste.

Altsasun, Etxarri Aranatzan, Irurtzunen, Urdiainen, Olatzagutian eta Lakuntzan daude bertsozalaritzan trebatzeko ikastaroak. Ikasturtea dagoeneko hasi bada ere, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Bertso Eskoletako bultzatzaileek, azaldu dutenez oraindik dago matrikulatzeko aukera. Izena eman edo informazio gehiago nahi izanez gero 948143747 telefonora deitu edo nafarroa@bertsozale.eus e-postara mezu bat bidali.

## Sakanako lau ikastetxe 'Musikariak ikastetxeetan'

Hezkuntza departamentuak antolatutako programaren helburuetako bat euskararen transmisioa bultzatzea da

### SAKANA

Eñaut Elorrieta, Gorka Urbizu, Miren Narbaiza, Zuriñe Hidalgo eta beste hainbat musikari eta abeslari ospetsuk Nafarroako 37 ikastetxe bisitatuko dituzte. Bisita hauetan ikasleei euskal musikaren tradizioaren ibilbidea ulertzeko tresnak emanen dizkiete hizkuntza sustatzeko. Gainera, zuzeneko musika eskainiko dute ere. Maria Solana Hezkuntza kontseilariak azaldu duenez, "kulturaren eta hizkuntzaren transmisioaren mezularia da musika".

Altsasuko Iñigo Aritzta ikastola, Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutua, Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxea eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastola dira programan parte hartuko dute Sakanako ikastetxeak. Hezkuntza Sailak azaldu duenez, Musikariak ikastetxee-



Musikariak aurkezpenean. UTZITAKOA

tan programa urria eta azaroa bitartean jarriko dute martxan. Ikastetxeetan argibide gutxi dituzte momentuz.

Musikarien saioak 14 eta 18 urte bitarteko ikasleei bideratuta daude, eta saio bakoitzean gehienez 40 lagun egonen dira.



2017ko Txikitixa Eskolen jaialdia.

## Trikitixa doinuak Arbizuko Txistor eguna amaitzeko

Nafarroako Trikitixa Eskolen jaialdia egingen dute hirugarren urte Txistor egunaren egitarauaren barruan. Igandean, 17:00etan, izanen dira emanaldiak, plazan. Trikitilariak taldeka aterako dira agertokira.

Eskolen arteko kideak elkar ezagutzeko eta harremana bultzatzeko asmoz sortu zen jaialdia duela hiru urte. Dantza egiteko aukera izanen da ere.

## BAZTERRETIK

### ALTSASUKO LIBURUTEGIA

## “Bihotz handiegia”, “Zubigileak” eta “Korri, Kuru, korri!”

Altsasuko liburutegitik helduendako bi irakurketa proposamen –nobela eta komikia– eta haurrendako liburu luzatu dizkigute.

- **Helduendako Narratiba: Eider RODRIGUEZ: *Bihotz handiegia*, Susa, 2017**  
**NARRATIBA EUSKADI SARIA 2018**

Sei ipuinek osatzen dute Eider Rodriguezen azken liburua, baina lehenengoa, bihotz handiegia horrek bil ditzake guztiak: norberaren (gorputzaren) eta gizartearen arteko hartu-eman, edo hobeto esanda talka, baita istorio guztien gidaria. Pertsonaien barne-mundu sakona, zorrotza, kontraesanek bete eta batzuetan gatazkatsua ageri da lehen planoan, baina besteekiko edo gizartearekiko harreman estu eta gazi-gozaon beti. Sei kontakizun bitxi, ohiko, erreal

eta irreal aurkituko ditu irakurleak, zein baino zein latzagoa, Rodriguezen idazkera zehatz, gordin eta zoragarriak gidatuta.

- **Helduendako komikia: Alfonso ZAPICO: *Zubigileak*, Astiberri, 2018; *Los puentes de Moscú*, Astiberri, 2018**

2016ko neguaren lehen egunean, Eduardo Madina eta Fermin Muguruza Irunen elkartu ziren. Aitzakia Jot Down magazinerako elkarrizketa bat izan zen, baina edozein estakuru izan zitekeen egokia bi euskaldun horiek, bizi-ibilbide itxuraz oso desberdinak izan dituzten bi euskaldun horiek, elkartzeko. Madina –2002an ETArean atentatu batetik bizirik ateratzen politikari sozialista– eta Muguruza –Kortaturen lider historikoa eta Euskal Herriko musikaren erreferentziatoko

bat– solasean aritu ziren kafe baten aurrean, Alfonso Zapico marrazkigileak une haren potreta bere koadernoan jasotzen zuen artean.

- **Haurrendako narratiba: Patxi ZUBIZARRETA: *Korri, Kuru, korri!*, Ibaizabal, 2018, 84; ¡Corre, Kuru, corre!, Edelvives, 2018, 82**

**ALA DELTA SARIA 2018**  
Erorketa baten ondorioz, Nora ospitalean sartu da eta han Kuru ezagutuko du. Bere istorioa tristeegia iruditzen zaio eta, horregatik, nahiago du ez kontaktzea. Hori dela eta, 1827an Egiptotik Parisera Frantziako errege-erreginei Mehmet Ali pashak egindako opari moduan bidaiatu zuen jirafaren istorioa kontatu dio. Bidaia horretan, Atir, bizitzan bakarrik dabilen eta azkenean elkarrekin banaezin bihurtuko diren haurra izango du lagun.





Helena Taberna zinemagile altsasuarra. UTZITAKOA

# "Nire herrian oinarritutako zinema egitea gustatzen zait"

**HELENA TABERNA ZINEMAGILEA**

Euskadiko Filmotekak Helena Taberna zinemagile altsasuarraren inguruko liburua argitaratu du, eta haren lanaren atzera begirakoa antolatu du Donostian eta Bilbon

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU Haurtzarora eta gaztarora Altsasun bizi zuen. Eta horrek haren lanetan eragina izan duela aitortzen du. Euskadiko Filmotekak Helena Taberna zinemagilearen lanak hartu ditu, eta abendura arte proiektatuko ditu Donostiako Tabakalera. Gainera, aste honetan Filmotekak Bilboko Arte Ederretako museoan egoitza mustu du eta Tabernaren atzera begirakoa izanen da ere. **Atzera begirakoa antolatu du Filmotekak. Nola sentitzen zara?**

Oso pozik nago. Gauzak ongi ateratzen ari dira. Zure filmek garai batean oihartzuna izan zutela ikusteak, eta oraindik ere garrantzia dutela jakitea gauzak ongi egin nituela esan nahi du. Egin dudana hutsala ez dela

**"2018 URTEA ARGITASUN BETERIKO URTEA IZAN DA FEMINISMOAREN GARAPENERAKO"**

sentitzen dut. Lehenengo emanaldia *Yoyes* izan zen eta sala bete zen.

**Liburua ere argitaratu dute.** Carlos Roldanek egin du liburua. Nire filmen analisia ez ezik, elkarrizketa dago ere. Carlos aspalditik ezagutzen dut zinemazaleak garelako. Kafea hartzera gelditzen ginen filmei buruz hitz egiteko. Liburua egiteko berdina egin dugu, zazpi arratsalde egon gara eta nire lanetatik errepassoa egin dugu. Haurtzaroz hitz egin dugu ere.

Oso polita gelditu da. Irakurtetza da. Estimulatuzailea da ere, izan ere, nire karrera estimulatuzailea da. Gauzak kontrariatu eta aurrera egin nuen.

**Nolakoa da zure estiloa?**

Nire herriko errealitatean oinarritutako zinema egitea gustatzen zait. Gainera, herriaren eraldaketan lagundu izana ere gustatzen zait. Nire tresna zinema da. Altsasun asko markatu ninduten gauzak dira. Niretako ere oso garrantzitsua da estetika zinematografikoa.

**Benetako istorioak kontaktzen dituzu.**

Ni neu sakontzera behartzen nauten istorioak. Gaur egun albisteak oso azkar egiten dira eta ez naiz titularretaz fidatzen. Nire bi pasioak uztartzen ditut: zinema eta istorioak kontaktzea. Biak ere giza gaiekin uztartuta daude. Hala ere, nire zinema ez da panfletarioa. Nik gertaerak erakusten ditut, informazio hori antolatuta dago eta kontakizun bat sortzen dut. Gero ikus-entzuleek erabakitzen dute gehiago sakondu nahi duten.

**Zure estiloa aldatu edo garatu dela nabaritu duzu?**

Atzera begirakoa prestatzen ikusi dut koherentzia eta etengabeko garapen bat dagoela. Baita etengabeko arriskua ere. Izan ere, iruditu hala ez, gauza berriak frogatzea, arriskatzea eta erronka berriak jartzeko gustatzen zait. Kritiko batek esan zidan *Acantilado* nire azken pelikula ezberdina zela, baina betiko obsesioa nabaritzen zela eta gure kuadrilla kulturarekin zerikusia du: nola uztartu norberaren askatasuna eta talde bateko kidea izan. Ariketa hori askotan ikusten da nire filmetan, baita bizitza pertsonalean ere. *Yoyesen* edo *Marino Ayerraren* istorioetan ere ikusten da: aske

izateko beharra zuten, baina, aldi berean, taldearen beharra zuten.

**Zinemaren mundua oso maskulinizatuta dago, are gehiago hasi zinenean. Zaila izan zen sartzea?**

Emakumeen begirada isildua izan da. Agnieszka Holland zinemagilearen film bat ikusi nuen Iruñeko Emakumea eta Zinema erakustaldian eta nik zinema hori egin nahi nuela pentsatu nuen. Hortaz, motor bat behar dugu, erreferenteak behar ditugu. Feminismoak lan handia egin du istorioak eta pertsonaiak azaleratzen. Esaterako, Emilia de Zubeldiarena. Konpositorea izan zen duela mende bat eta munduan zehar bidaiatu zuen. Berak egin bazuen, nola ez dut nik egingo?

**Nola da gaur egungo egoera?**

Oraindik maskulinizatuta dago. Film bat egitea bizitza kostatzen zait. *Yoyes* egin ondoren, arrakasta handia izan zuenez eta sariak irabazi zituen nire hurrengo filma bakarrik salduko zela pentsatzen nuen. Madrileko ekoizleek esan zidaten oso opera prima ona zela. Eta nik uste nuen nire lagun gizonak bezala errazago izango nuela dena. Baina nik bizitza bilatu behar izan dut, ekoiztetxea sortu behar izan nuen, eta idazteaz eta zuzentzeaz gain zailena egiten dut ere: finantziarioa lortu.

**Etengabe borrokan.**

Bai, beti borrokan. Baina oso une onean gaude. Energia handiko une batean gaude. 2018 urtea argitasun beteriko urtea izan da feminismoaren garapenean. Feminista hitza duela ez hainbeste iraindutako hitz bat zen, eta gaur egun erabiltzen da. Baina oso denbora gutxian indar handia hartu du. Eta jarraitu behar dugu.

**Osoa: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)**

## Atzera begirako bikoitza

Euskadiko Filmotekak Helena Tabernaren inguruko atzera begirakoa antolatu du. Aurreko astean *Yoyes* filmaren emanaldia egin zuten eta Tabernaren eta Agnieszka Hollanden arteko solasaldia izan zen. Hilaren 18an jarraituko dute emanaldiekin: *La mujer de Lot*, *87 cartas de amor*, *Emiliana de Zubeldia* eta *Nerabe eskainiko* dituzte. *Busto del poeta*, *Alsasua 1936* eta *Recuerdos del 36* film laburrak hilaren 25ean proiektatutako dituzte. Aste honetan mustu dute Euskadiko Filmotekak Bilboko Arte Ederretako museoan izanen duen egoitza. Mustutzeko Tabernaren atzera begirakoa egingen dute. Bihar, urriaren 13a, larunbata, hasiko da jardunaldia *La mujer de Lot*, *87 cartas de amor*, *Emiliana de Zubeldia* eta *Nerabe* (18:00).



# "Eztia beti ona eta ezberdina da"

Karlos Garzia Martinez etxarriarrari erlezaintza gustatzen zaio. Etxarri Aranatzan erlauntzak ditu eta udazkenean ezta egiten du. Erle ekoizpenerako urte kaxkarra izan dela dio. Gainera, erleek hainbat arerio dituzte, eta handiena barroa dela dio.

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI ARANATZ

## 1 Noiz hasi zinen erlezaintzan?

Uharte Arakilen hasi nintzen. Aldamenekoarekin erle batzuk jartzea pentsatu genuen. Kuriositateagatik hasi ginen, asko jakin gabe. Garai horretan barroa sartu zen eta arrazoirik gabe desagertu ziren denak. Ez genekien horrelako gaitza zegoenik. Etxarri Aranatzera bizitzera etorri nintzenezan sukarra piztu zitzaidan eta erle batzuekin hasi nintzen berriz. Duela hamabost urte izan zen.

## 2 Asko aldatu da erlezaintzaren mundua?

Erlezaintzaren mundua etengabe mugitzen ari da. Bai zaintzaren aldetik, baita ezagutzaren aldetik ere. Gaitzei aurre egiteko modua, esaterako. Eta beti ikasten da zerbait.

## 3 Zer moduzko ekoizpena izan da aurtengoa?

Kantitatez kaxkarra izan da. Naturan ziklo ezberdinak izaten dira eta aurtengoa horrelakoa egokitu da. Joan zen urtean dezentente atera zen eta aurten gutxiago. Lehorteengatik izan daiteke.

## 4 Eta kalitate aldetik nolakoa da zure ezta?

Eztia beti da ona eta ezberdina. Aurten, adibidez, larra loretatik atera dute ezta. Iaz askoz ilunagoa zen txilarrarena zelako. Txilarra oso gutxitan bildu izan dut, eta iaz sorpresa izan zen. Oso estimatua da txilarraren ezta.

## 5 Nola lortzen da lore mota bakar bateko ezta?

Erleek informazio sistema bat daukate eta behin lore mota jakin batean biltzen hasten direnean erlauntzera joaten direnean informazioa pasatzen dute. Hortaz, garai horretan erle guztiak lore mota horretara joaten dira. Guk ezberdintzen dugu koloreagatik. Taula bat dago jakiteko kolorearen arabera zer lore motatako ezta den.

## 6 Etxarri Aranazko ferietan ezta saltzen egon zineten. Zer moduz?

Ezti gutxi zegoen eta jendea portatu zen. Gainera, bat-batean eguraldia aldatu zen eta dirudenez ezta neguari aurre egiteko da. Beraz, ongi. Jendearen gustukoa da. Ezti-orrzetik zuzenean probatzeko aukera ematen dut eta oroitzapen politikak dituztela esaten didate.

## 7 Erlezaintza zaila da?


Oso berezia da eta hemen ez dago oso zabalduta. Beste herrialde batzuetan industria handia dago. Baina Sakanan ez. Eguraldiagatik izan da, ez dela oso egokia erlezaintzarako. Gainera, gauza asko jakin behar dira erlezaintzaren inguruan. Erleek ipurdian ezten bat izateak ez du laguntzen. Jendeak beldurrarekin begiratzen ditu erleak. Gu beti babestuta joaten gara.

## 8 Erleak desagertze arriskuan daudela diote.

Bai. Erleak zuhaitzetan egoten ziren lehen. Barroa sartu zenetik basoetatik desagertu dira. Izan ere, ez badituzu zaintzen hiltzen dira. Bi edo hiru urtetan tratamenduan ez badituzu jartzen akabo. Gure etsai handiena gaur egun barroa da.

## 9 Zer da barroa?

Arkakuso bat bezalakoa da. Erleei linfozitoa zurruputzen die eta zurrupatzean birusak sartzen dizkie. Erle multzo handi batek barroa duela ikusten duzunean derrigorrez tratatu behar da. Elkarteko albaitariak tratamenduak ematen digute eta fitxan jartzen du. Bestela,



Karlos Garzia Martinez erlezaindaria.

erlauntza batetik bestera eramaten dute gaixotasuna. Orain zuhaitzetan agertzen diren erleak guri eskapatzen zaizkigunak dira.

## 10 Beraz, mendian ikusten diren erleak erlezaindarienak dira?

Bai. Udaberriaren bere sistema handitzen dute eta gerta daiteke ama bat hainbat langilerekin eskapo egitea. Beste leku batera joaten dira eta edozein tokitan bizileku berria sortzen dute: enbor bat izan daiteke, etxetako pertsianen kutxa... Eta horrela beste ziklo bat hasten dute.

## 11 Asiako erlamina ere beste arerio bat da, ez?

Asiatik etorritako erlamina, bai. *Vespa velutina* deitzen dira. Hemen bageneukan *vespa* familia-ko liztorrak, *vespa cabro*-ak, baina ez zen hain harrapakaria. Beste espeziea oso bitxia da. Erleak jaten ditu modu berezian, gainera. Harrapatzen ditu, burua moztzen die eta haien hurrei proteina bezala eramaten die. Udazkenean ere erlauntza barruraino sartzen da eta erleei ezta kentzen die. Erlea erdi ahula badago, hiltzen du. Eta ez dakigu nola amaitu harekin.

## GURE TRESNAK ZURE ESKU